

1994ko maiatzak 20

236. zenb.

PRESS

**ARRASATE**

**Etxezarreta  
zer hintzen eta  
non hago?**

ART 8

**AMORE EMANGO DUZU!**

*Ipek Denda*

Iturriotz, 19  
Arrasate

**UDABERRIA**

**ALMACEN DE MUEBLES MONDRAGON**

**Egurrean**  
aukerarik zabalena  
preziorik onenean

**MUEBLA**

**MUEBLA**

Cipuzkoa Etorbidea, 6 Legarre eraikina Tfnoa: 79 73 32

# Oposaketak ala oposakeria?

Iritsi dira gurera berriz ere oposaketa sailduak, irakaslego etsituaren salbamenerako. Iaz hitzemandakoa beteaz, ireki da ostera paper-nahaste, zerrendatze, kexa eta buruhausteen garaia. Hezkuntza Administrazioak bere eskuzabaltasunaren seinale, gure bizimodua bide onenetik eramango duen aukera jarri digu aurrean.

Baina aurretik ia isilik iritsi da albistea, iaz ez bezala eztabaida eta iskanbilaz inguratutako gabe, nahiz eta akats berberak egotzi ahal zaizkion: gaizki eginak konpontzeko itxaropen eta kemena agortu ote ziren?

Urtetan zehar ikusi eta ikasi ditugu

hezkuntza publikoan aritzearen abantailak. Asko eta askoren helburu irmo bihurtu da funtzionaritzara iristea, are gehiago lan pribatuaren esparruan sendotzen ari den ziurtasun eza ikusiz.

Hori dela eta, eta boletinean argitaratutakoa ulertzeko makina bat saio egin ondoren, samaldan abiatzen dira funtzionari-gaiak esandako guztiak baieztatuko dituzten titulu eta ziurtagiri konpultsatuak aldean eramanaz leihatilan dagoenak trabarik jarriko ez duen itxaropenaz. Zoritxarrez, leihatilan dagoena ere sarritan ez da lege eta arauen jakitun izaten, eta hamaikatxo joan-etorri eragiten ditu.

Halere, azterketa egitera iristeko zoria izanez gero, badago beste trabarik ere; izan ere, azterketa aprobata ondoren merituak hartzen dira kontuan eta alor honetan ere badago zer esanik. Irakaskuntza publikoan egindako ikasturte oso bakoitzagatik 1.500 puntu jasotzen du irakasle batek, eta 0,125 hilabete osoko lanagatik, gehiengoz 6 puntu kontu ditzakeelarik. Irakaskuntza pribatuan, berriz, egindako ikasturte oso batek 0,250 puntu ematen dio irakasleari, eta gehiengoz puntu bat bil dezake. Zein da desoreka horren arrazoia?

Agian, irakaskuntza publikoan pribatuan baino gehiago egiten al da lan? Hobeak ote dira?...Eta sindikatuen onarpenarekin. Hau da marka hau!

Gure esperientziaren arabera, jada administrazioarentzat lan egin ez duen inork ez dezake muga hori igaro, ezta ezagupen eta planteamentu didaktikoei azterketan emaitzarik bikainena lortuta ere. Beraz, txanda irekiko lanpostuak eskaintzen direla esaten dutenean zer esan nahi ote dute?

**KARMELE PEREZ**



Saguzahar

• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarneta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Karmele Perez, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopy, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Arantzazu Loidi



**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
 **77 08 15**

**Hilbera kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
**ARRASATE**

**Memesa**  
**79 42 22**

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Tfnoa: 71 46 08

GATZAGAN

“EDERTU”

ileapaindegia



San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,  
Tfnoa: 79 14 90  
ARRASATE

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ARRASATE PRESS**

**HARPIDETZAK**

77 08 15

••••

**Zatoz Goikobalura**

**H**onez gero izango duzue Goikobaluren berririk, bost urte baitarama Arrasaten, kantu korallarekiko grina bere inguruan biltzen saiatuz.

Talde zein pertsona mailan aberasgarri izango zaizkigun gauzak egiten saiatzen gara eta horregatik, euskal musikaren altxorak plaza-ratzeaz gain, musika sinfoniko-koralaren mundu oparo eta atseginean murgildu gara. Bi bide hauek jende interesgarri askorekin lana egiteko aukera eman digute, Euskal-Herriko, Espainiako nahiz atzerriko zenbait zuzendari eta musikarirekin hain zuzen ere.

Baina gure nahia ez da gaudenetan geratzen, horrelako talde bat ezin baitzaio bide aldakaitz eta monotono bati lotu: gure helburua etengabe garatu eta ugaritzea da.

Hau hala izanik, ZU, musikaren inguruan zabil-tzan edo ibili zaren musikazale hori, ez al zara animatzen gure arteko kide izate-ra?

*Anima zaitetz* eta etorri gure proiektu berri eta atseginekin gozatzera. Ea non aurkituko gaituzun? Oso erraza da. Toki eta ordu hauetan elkartzeko gara: asteartetan, 8.30etan Arrasate Musikalen eta ostiraletan, 8etan San Frantzisko Xabier ikastolako aretoan (Gazteluondon).

Izan zaitetz gutako bat eta

**ECUADOR**

**Bidaiak**

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06

goza ezazu musika eta kantuarekin. Eskuzabalik hartuko zaitugu!!

**GOIKOBALU**

••••

**Apostasia**

**B**hean sinatu dugun kolektibook, EHGAMek (Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak), bultzatu duen kanpainarekin bat egin nahi dugu. Horregatik, euren burua aurrerakoi edo progresistatzat daukaten guztiei, Eliza Katolikotik alde egiteko banatuko diren paperak bete ditzatela eskatu nahi diegu.

Fededun ez direnentzako eta elizaren taldekidea izateak suposatzen duen itxurakeriarekin bukatzeko, hauxe da une egokia. Fededunek ostera, Hierarkiaren aurrean protesta gogorra egiteko aprobetxa lezakete, askatasun indibidual batzuen aurka (sexu-aukeraren kontra, adibidez) jokatzeko, eta emakumearen duintasuna, bigarren mailako pertsonatzat hartuz, urritu eta iraindu egiten duelako.

Euren sinismenak direla eta, Eliza barruan iraun nahi duten katolikoei ere, zera eskatuko genieke: lehen aitatu-tutako gaiei buruz eguneko Aita Santuaren, Elizako Hierarkiaren eta Katekismo berriaren iritzi kondentatzailerak etenbako eta erabatekoei uko egiteko iruditzen zaizkien baliabide egokienak erabil ditzatela. Gaur egun, katoliko izan arren, jende gehienak abortoa, sexu-

aukera...nork bere sinismen edota iritzien arabera erabil ditzakeen eskubide hutsak besterik ez direla uste delako, azkenaldian eutanasiaren kasuan gertatzen ari den lez.

Zelabait burutzearren, Aita Santuaren dotrinen kontratan oso ondo erakusten dituen Perich-ek egindako txiste “beltza” ekarriko dugu kontura: “Vaticanoak erabat kondenatu du eutanasia. Are gehiago, gaiso sendaezinari heriotza zigorra emango baliote, heriotz zigorra ez aplikatzea eskatuko luke.”

**ARRASATEKO GAZTETXEA,  
TUNANTES DEL NORTE,  
EGIZAN,  
EMAKUMEEN ASANBLADA,  
HIES-EKIMENA,  
EZKER BATUA (I.U), ZUTIK**

••••

**Hi, Pixto!**

**A**ditu dut gauean Basajaunaren arrantza, bus-ti nau Tartaloren begi bakarraren negarrak ere, baina, Pixto, gure adiskidetasuna sorginak hegaz egin dezakeenaren gainetik dago.

**J.O.**

**Umeentzako moda**


Ferrerias Kalea, 34  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 97 86

# Udaberriak eragiten dizu?



**Jesus Cantalapiedra Langilea (32 urte)**

Bai, udaberrain askoz ere animatuagoa sentitzen naiz.



**Manuel Sanchez Langilea (52 urte)**

Udaberri eta uda garaian alaiago egoten naiz. Neguan, hotz handiegia egiten du.



**Ines Algaba Etxekoandrea (72 urte)**

Bai, eragiten dit. Bihotza ez daukat oso ondo eta udaberrian okerrago sentitzen naiz.



**Milagros Garcia Fagorreko langilea (40 urte)**

Niri ez dit eragiten. Udaberria heltzean ez dut ezer berezirik sentitzen.



**Tere Baza Etxekoandrea (44 urte)**

Jakina, udaberrian guztioi odola nahastu egiten zaigu eta horrek eragiten du.



**Ramon Ugalde Institutoko irakaslea (36 urte)**

Ba uste dut ezetz. Negutik udaberria ez dut aldaketarik sentitzen.



**Miren Zubizarreta Iakaslea (24 urte)**

Udaberrian askoz ere animatuagoa egoten naiz, gogo handiagoaz.



**Joaquin Sanchez Langabetua (47 urte)**

Uste dut jende guztiari bezala niri ere eragiten dida.

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE

*Mendi  
taberna*

**MENDI DA ZURE ETXEA**

Maalako Arrabala, 4  
Tfnoa: 79 20 54

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Sanita Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larnaldiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
.....	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udalizaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) .....	12 01 62
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78
<b>Garraioak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Monterrongo liburutegia</b>	
Monterron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- Ostirala 20**  
Egunez eta gauzez: Amezua. Santa Marina.
- Larunbata 21**  
Egunez eta gauzez: Ruiz. Magdalena.
- Igandea 22**  
Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
- Astlehena 23**  
Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
- Astearte 24**  
Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
- Asteazkena 25**  
Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.
- Osteguna 26**  
Egunez eta gauzez: Irizar. Erguin.

**20 OSTIRALA**

**AURKEZPENA**

Euskaria, Euskal-Herriaren su-biranotasunaren alde lan egi-ten duen elkartearen aurkez-pena. Udaletxeko pleno are-toan, 6.30etan.

**KANTALDIA**

Erramun Martikorenaren kantaldia, arratsaldeko 7etan, Monterronen. AEK eta Gi-puzkoako Diputazioak anto-latuta.

**BERGARAKO JAIK**

8etan, jaien hasiera, etxalero jaurtiketa eta Bitorianatxoren jeitsierarekin. 11etan, San Martin plazan, dantzaldia Gau Bela taldearekin. Ordu berean, Rock kontzertua, Bideberrin.

**ELKARRIREN JAIALDIA**

Bertsolariak: Jon Sarasua, An-doni Egaña, Xabier Amuriza eta Mendizabal. Karkastillo-ko joteroak. Abeslaria: Erra-mun Martikorena. Atxabal-tako kirol etxean, gaueko 10.30etan. Sarrera: 900 Pta.

**KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Malako talde Errusiarraren kontzertua. Gaztetzan, 9.30etan.

**PAILAZOAK**

2.30etan, Durangoko Azokan umentzako pailazoak: Pirru-tx, Porrotx eta Takolo. 3etan Tabira kiroldegian Gimkana. Antolatzailea Berbaro elkar-tea.

**21 LARUNBATA**

**ZINEA**

"La edad de la inocencia", 5etan, 7etan eta 10etan.

**DANTZA**

Arteszena taldearen "Amets be-roak" Dantza garaikideko emanaldia. Amaia antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera 700 Pta, gazte txartelaz: 500 Pta.

**JUBILATUEN EGUNA**

11etan, jaia adierazteko kalejira Arrasateko Dultzaineroek alaituta. 12.30etan herri-meza San Juan Eleizan eta ohorezko aurrezkoa Lore-Gazteak dantza taldearekin. 13.45etan, Garibai kaletik polikiroldegira joango den Autobusaren irteera. 2etan, Lagunarteko bazkaria. 4etan, adin gehien duten gizon eta emakumeei sariak banatzea. Jubilatuentzat dantzaldia. Sari berezien zozketa.

**BERGARAKO JAIK**

9etan, 14 urtez azpikoentzat XIII. marrakzi eta margo lehiake-ta librea. 12etan, sukalderi-tza lehiaketa. 4.30etan Pen-tekoste Feriako pilota parti-duen hasiera Udal pilotale-kuan. 6etan, Xamatx dantza Taldea. 11etan Ur taldearen "Sueño de una noche de verano" Antzerkia.

**ITURRIRI ONGIETORRIA**

Arratsaldeko 7etan, kontzentra-zioa Gatzagan, ondoren ko-txe karabana Atxabaltaraino. 7.30etan ongietoria Mitarte enparantza.

**22 IGANDEA**

**ZINEA**

"La edad de la inocencia", 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**MURRUKIXO IRTEERA**

Baso Baltzera mendi irteera. Goizeko 9etan, Aretxabale-tako Partenoitik. Bazkaltze-ko etxera. Murruxok anto-latuta.

**IBILALDI INFORMATIBOA**

Abiadura Haundiko Trena non-dik pasatuko litzatekeen ikus-tea. Aramaioko Orixol mendi elkarteak antolatuta. Irteera, goizeko 10etan Aramaioko plazatik. Arratsaldeko 4etan asanblada Aramaioko zine-man. Bazkaria eraman.

**HAUR ZINEA**

"Navigator, una odisea en el tiem-po", Amaia antzokian, 5etan. Sarrera: 200 Pta.

**TOPAKETAK**

Senitarteko IX. Topaketak, Aita Menni ospitalean. 10.30etan harrera. 11etan Meza. 12.30etan Senidei zuzendu-tako informazioa. 1etan Gai-soen ekitaldia. 2etan bazka-ria. 3.30etan zozketa eta dantzaldia.

**KONTZERTUA**

Hungriako "Hungara orkestra sin-fonikoa". Arratsaldeko 7.30etan, Amaia Antzokian.

**BERGARAKO JAIK**

9etan entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. 1go eta 2. mailako afizionatuentzako txirrindulari lasterketa "LVIII pentecoste saria". 4.30etan pilota partiduak.



**JUBILATUEN EGUNA**

**Zapatuan jubilatuen izango dira protagonista. Ondo pasa egun hori ospatuko duzuenok!**

**23 ASTELEHENA****ZINEA**

"La edad de la inocencia", 7etan, 9.30etan.

**AMAIERA EKINTZA**

Trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzearen aldeko taldeak antolatuta. Arratsaldeko 7etan, Abaroa jubilatuta etxean.

**BERGARAKO JAIK**

8.30etan kalejira, Los Incansables txangarak alaituta. 9etan entzierroa Barrenkaletik zezen plazaraino. 12.30etan Udal Musika Bandaren kontzertua. 4.30etan Pilota partiduak. 7etan, patinete eta patin lasterketa, Jarduneko gazte taldeak antolatuta, Bideberrin. 11.30etan, Rock kontzertua, Bost Axola eta Anestesia taldeekin, Bideberrin.

**24 ASTEARTEA****ZINEA**

"La edad de la inocencia", 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**

Gaia: Ruandako gatazka, bere sustraiak, gutako bakoitza zelatan den 3. munduko pobreziaaren errudun. Hizlariak: Leonardo Esnaola eta Manuela Aizpurua, Ruandan izandako misiolariak. Arratsaldeko 7etan, Monterroren. AEDk antolatuta.

**25 ASTEAZKENA****"RUPER ORDORIKAREN" KANTALDIA.**

Bergarako Zabalotegiko aretoan, 7etan. Antolatzaileak, Bergarako Udala eta Udal eskualtegia.

**26 OSTEGUNA****ZINEA**

"Agenda oculta", Amaia antzokian, 9.30etan. Sarrera: 300 pta, gazte txartelarekin 250 pta.

**ERAKUSKETA IBILTARIA**

3.30etatik 7etara Bulego Ibiltaria Monterronen, bertan Emakundeko bi monitora egongo dira. 7.30etan "Shirley y Valentine" pelikula Monterronen. Emakundek antolatuta.

**ANTZERKIA**

"Hala ba zan ez bazan sar dadi-la", In Fraganti taldearen eskutik. Bergarako Zabalotegiko Aretoan, 7etan.

**HITZALDIA**

"Gazteon lan egoera Euskal Herrian". Udaleko Pleno aretoan, 6.30etan. Hizlaria: LAB gazteakeko partaidea. Antolatzailea: Arrasateko Jarrai.

**IBILALDIA BILBON**

**Maiatzaren 29an ibilaldia euskararen festa ospatuko da Bilbon. Bertara joateko autobusak antolatu dira. Txartelak, Hire, Iturriotz eta AEDn eros daitezke. Autobusak, goizeko 9etan irtengo dira.**

**IPIIN LEHIAKETA**

Arrasateko Udaleko Hezkuntza eta Emakumearen udal sailak ipuin lehiaketa antolatu dute. Gaia: "Ikusten duzu gaurko gizartean neska-mutikoen arteko desberdintasunik?". O.H.Oko 6., 7. eta 8. mailako ikasleei zuzendua. Hiru eta bost folio bitartean idatzi beharko dira. Ipuinak euskaraz idatzi behar dira. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 27an bukatuko da.

**JARRAIEN LEHIAKETAK**

Jarriaren XV. literatur eta argazki lehiaketa. Deba Garaian bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Bi kategoria bereiztuko dira: 16 urtera bitartekoak, 16 urtetik gorakoak. Lan guztiek euskarazkoak eta orijinalak izan beharko dute. DIN-A4 orrietan bidaliko dira eskuz zein makinaz. Lanean ez da izenik jarriko, lema bakarrik Lanak sibre handi batean sartuko dira eta datu pertsonalak sibre txiki batean. Maiatzaren 27a baino lehen, (Gazte informazio bulegoa, Garibai Etxea, Biteri etorbidea, 3 Arrasate), bidali beharko dira.

**ERAKUSKETA IBILTARIA**

Emakunderen erakusketa ibiltaria ostegunean etorriko da Monterronera. Arratsaldeko 3.30etatik 7etara.

**HELDUEN HEZIKETA**

Arrasateko helduen heziketa ikastetxeak, 94-95 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du, maiatzaren 30a arte. Matrikula ikastetxean bertan egin daiteke (Ferrerias kalea 28-B) edo 771172 zenbakira dei eginda.

**NOBELA LEHIAKETA**

Igartza abentura eta misteriozko nobela lehiaketarako deialdia. Pertsona guztiak izan daitezke partaide, adina eta nazionalitatea kontutan hartu gabe. Idazlanak, jatorriz euskaraz idatziak, inoiz argitaratu gabeak eta beste inolako sariketatan saritu gabeak izango dira. Idazlanen gaia librearen arren, guztien ardatza abentura edo misteriozko kontakizuna izan beharko da. Lanak Irailaren 30eko 13etarako aurkeztu edo postaz jaso beharko dira, Beasaingo Udaltxeko Euskara zerbitzuan.

“MCC nola moldatzen den ikusi ondoren, gure enpresa eta ekonomia iharduera orokorrerako gogoetak atera ahal izango dira, agian: erabakiak zuzenak ala okerrak izan diren ikusita, edozein modutan ere, ekonomi krisiari eta gure gestio eta produkzioko egiturak modernizatzeko dagoen beharrari irtenbideak aurkitzeko ideiak atera ahal izango dira. Badirudi Mondragon Taldearen zailtasunen erdian ere, baikortasuna dagoela, krisi egoera eta MCCri ere eragin dioten ajusteko politikaren gainetik. (...)

Ojala, Olazabalen ‘eagle’ bikain hark bezala, Arrasatek ere munduari bira emango balio, bere ekonomia eta elkar-tearen osasun ona albiste harturik.

**Gorka Knorrek** 94-5-2ko

**EL DIARIO VASCO**

“V. Kultur Aste honekin, aurtengoak aurreko lauren arrakasta gaintzea helburu harturik gauzak egiteko denok parte hartzen dugunean horrelako bat antolatzea zein erraza den erakutsi nahi diegu berriz ere Al-Andaluseko bazkideei.

Al-Andaluseko presidente moduan, oso harro nago gure Zentruko bazkideen giza-kalitateaz, eta gure animo horrek betiko iraun dezan, topa egin nahi nuke gure finoarekin.

Aste honetan zehar oso ondo pasa behar dugu, eta ohitura dugunez, gure Zentrorra edo gure ekintzetara hurbiltzen diren guztiak gurekin gozatzea lortuko dugu, izan ere, alaitasuna ez da sekula erabatekoa izango, besterekin goza ez badezakegu”.

**Rafa Gomezek**

**Ajilimójili**


“Espedizioa oso arina da eta aurrekontua 8,5 milioi pezetakoa, beraz babesle zerrenda luzea bai baina bakoitzak diru kopuru txikiagoa jartzeko. Zerrenda horren inguruan gezur ugari entzuten dira. Esan izan da Albertok eta biok 20 milioi pezeta kobratuko ditugula espedizio honegatik. Zenbat lelokeria!”

**Felix Inurrategik** 94-5-15

**ARGIA**

**Zer da Euskaria eta zein helbururekin egin duzue Arrasaten aurkezpena?**

**E**uskaria, Euskal Herriaren subiranotasun nazionala berreskuratzearen alde lan egiten duen erakundea da. Euskariako partaideon ustez, egun bizi ditugun arazo askoren iturburua, gure herriaren askatasun eza da. Euskal Herriak etorkizun on baterako duen alternatiba bakarra, autodeterminazio eskubidea lortzea da, hau da, erabakiak bere kabuz hartzeko eskubidea izan behar du. Hori lortzeko, zazpi herrialdetako abertzaleen bateratzea proposatzen dugu.



**Iker Basterrika**  
Arrasateko “Euskaria” taldeko partaidea

Abertzaleen bateratzea aipatzen dudanean, abertzale guztiona esan nahi dut. Hau da, Euskaria erakunde apartidista da. Ez da alderdi politiko baten baitatik sortu eta bere barruan pentsakera desberdineko jendea dago. Gainera, nahiz eta partaide batzuk alderdi politiko jakin batekoak izan, Euskaria ez da alderdi politikoen jokuan jausten. Lehen esan dudan bezala, abertzale izateak batzen gaitu.

Bestalde, taldea indartu eta beronen berri eman behar dugula uste dugu. Horregatik, aurkezpena egin dugu Arrasaten, helburuak lortu ahal izateko garrantzitsua baita presio soziala egitea. Beraz, Euskal Herriaren autodeterminazioa lortzearen alde lan egin nahi duten guztiak, Euskarian parte hartzera gonbidatu nahi ditugu. Esan bezala, alde batetik Arrasaten taldetxoa eratu nahi genuke baina bestalde, garrantzitsua iruditzen zaigu autodeterminazioak zein onura ekarriko dizkigun jendeari azaltzea. Ez da nahikoa autodeterminazioa behar dugula esatea, zergatik eskatzen den jakin behar da. Hori dela eta, herri desberdinetan aurkezpenak egiten dira.

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**

 **77 08 15**

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

**M  
I  
T  
A  
R  
T  
E**



**Nekazalturismoa**

Etako berezitasunak & Euskal janariak & menua  
edo karta & Mendiko irteerak & Urkulun pasioak &  
eta gaua iristen denean... logelak!



Areantza auzoa. Tfnoa: 79 17 51

**G  
A  
R  
A  
I**



**San Pankrazio**

Joan zen ostegunean San Pankrazio eguna ospatu zuten Eskola Politeknikoan. Nahiz eta aste osoan zehar ekintza ugari izan, egun potoloa ostegunean ospatu zen eta horregatik, jai giro alaia izan zen asteazken gauetik ostiral goizaldera arte.

**Asteburuko istripuak**

Domekan bi istripu gertatu ziren. Batetik, motor batek kamioi baten aurka jo zuen eta ondorioz, motoa gidatzen zuen gaztea larriki zaurituta eraman zuten Eskualdeko Ospitalera. Bestetik, ziklomotore batek auto baten aurka jo zuen eta gazte bat Eskualdeko Ospitalera eraman zuten. Bestalde esan, asteburuan egindako alkoholemia kontroletan 3 pertsonak eman zutela positibo. Horietako batek, odolean 2,12 gr/ litroko alkohol tasa zuen.

**LKSren batzar orokorra**

Ostiralean LKSK batzar orokorra egin zuen. Batzarran adierazi zenez, krisiaren eragina asko igarri



**San Isidro arrakastatsuak**

Jai giro alaia izan zen Musakolako jaietan. Ostiralean, ikurriña igotzeaz batera, jai ei hasiera eman zitzairen. Orduetik igande gauerarte, denetik ikusi eta egiteko aukera izan zen. Hala ere benetako protagonistak, kirol ikuskizunak eta estatuko toki guztietatik etorritako motoristak izan ziren. Igeriketa, karatea, txirrindularitza, pilota, herri kirolak, gimnasia erritmikoa, xakea...kirola behintzat ez zen falta izan. Maxi Eroski ondoko zelaira, berriz, 300 motorista inguru hurbildu ziren euren motor ikusgarriekin. Musakolaren independentziaren aldeko kiñurik ere izan zen. Horren adierazgarri, zapatu gauean, Musakola ilun geratu zen bost minutuz, argi guztiak itxungi ondoren.

dute, enpresek kontsultoria eskaria jeitsi egin baitute. Hala ere, enpresen egoera hobetuz doanez, aurtengo iharduera bide onetik doala zehaztu zuten.

**Arrasate-Oñati krosa**

Domekan korritu zen, AED eta Laixan elkarteek urtero antolatzen duten Arrasate-Oñati krosa. Aurten 250 korrikalarik

parte hartu dute. Zailtasun bakarra haize gogorra izan zen, baina bestela normaltasunez korritu zen. Lasterketa, Joxe Apalantza errezildarrak irabazi zuen, bigarren Ramon Jausoro sartu zen eta hirugarren Alberto Revuelta. Arrasatearrei dagokienez aipatu, Jon Aperribai 20 urtetik beherakoetan lehena sartu zela eta beteranoen mailan, berriz, M. Jose Gil eta Enrike Kabiketa.

**Erreala Atxabalpen**

Asteazkenean, errealeko jokalariek atxabalpen entrenatu zuten. Espero zen bezala ume asko hurbildu ziren jokalaria ikustera.

**EZKONTZAK**

- Jose Mari Goikoetxea Toledo & Miren Gema Uriarte Arabaolaza. Maiatzaren 10ean. Elizaz.
- Andoni Zubia Madinabeitia & Miren Agurtzane Ganzarain Heriz. 14ean. Elizaz.
- Patrocino Delgado Garcia & M<sup>a</sup> Angeles Garcia Martin. 14ean. Elizaz.

**HILDAKOAK**

- Maria Aranzabal Guridi. Maiatzaren 11an. 85 urte.
- Santiago Berasategi Ayastuy. 11an. 89 urte.
- Ignazia Ortuarte Zubieta. 13an. 71 urte.
- Soledad Zudelejos Bilbao. 12an. 79 urte.

**Deba Garaia Inmobiliaria**



**Inmueble eta finantza agentzia**


Maalako Arrabala, 31 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 02

**TOLDOS LETE**



**Eguzkiaren indarrari... marka baten sendotasunak gogor egiten dio**

Kataide poligonoa. 14. Pabilioia (Musakola)  
Tfnoa: 79 23 83 FAX: 77 04 45



SOR TRINIDAD KORTA \*

## Zer da gaixoen pastoraltza?

**Vaticano II.** kontzilioaren ondoren, gizarteko arazo eta pertsonen arazoetara bideratu zen Eliza nabarmenki. Bakoitzaren behar hurbil eta errealen artean, gaixoak egoten dira, batzutan bakardadean, minarekin ia beti, giza berotasunaren beharrean eta horietako asko, baita Jainkoaren beroaren beharrean ere.

Hori dela eta, ez erlijio-soen Erakundeak bakarrik, Parrokian ere errealtate horrekin arduratzen hasi ziren eta borondate oneko kristauak Osasun Pastoraltza deitzen dugun horretan antolatzen hasi ziren.

Gure parrokian bederatzia lagun biltzen gara hama-bostean behin, otoitz egin, plangintza egin, bisitak egin, Gurejauna eta laguntza eraman eta antzekoak egin eta heldutasun bat iristeko. Urtean zehar, Artziprestaldeko

gainerako partaideekin batera, teologia, psikologia eta antzeko gaiei buruzko hiru edo lau ikastaro egiten ditugu.

Urtero Estatu mailan Gaixoaren eguna ere ospatzen da, kontzientzia hartzeko, otoitz egin eta sufritzen daudenekin desinteresaturik lan eginez Eliza sentitzen garenon ospakizun alai moduan.

.....  
**Gure errealtatean gaixoak daude bakardadean, minarekin ia beti, giza berotasunaren beharrean**

Aurtengo lema, "Ospa ezazu bizitza" da eta harremanetan gauden gaixo eta ezindu guztiak bisitatu ditugu euren etxean aurreko aste bietan. "Gaixoak, Bizitza eta gure konpromezua" izan zen gure parrokitan zapatu eta domekako mezaren gaia. Baina meza nagusia, 11etako, ahaztu ezindako ospakizun bihurtu zen: 50 kristau baino gehiagok Untzioaren Sakramentua hartu zuten pozaren pozez, azken igurtziaren sakramentu bezala gaizki ulertua izan den hori.

Familiarteko askoren partehartzea azpimarratu behar dugu, euskara hutsez izan zen ospakizuna eta Abaroako "hamabietakoa" rekin batera, kolesterolaren eta ardo-goxoaren beldurrik barrik.

\* OSASUN PASTORALTZAKO PARTAIDEA

## USTEAK USTE

### TRENAK ETA BIDEAK

Ferrokarrilaren oroigarri izan nahi duen erakusketara dago ikusgai Gasteizen. Gure trenbide zaharretan triki-traka ibili ohi zen makina zahar-berriak dotore ematen du Diputazioaren aurrekaldean. Aldameneko taldope batean trenaren inguruko gainerako proiektuen berri jasotzen da: abiadura handiko trena bideoan 500 km/orduko abiaduran pasatzen eta Euskal Y delakoaren egitasmoak paneletan. Gure sudurpuntatik edo hankazpitik (lurpetik) txistu batean pasako dena, inondik ere. Eta aspaldian trena edo trenbidea berbaleku egin duen talde batek arrakastaren berri ere izan dugu: **IGPetan trenbidea oinezko eta bizikleteroentzat berreskuratzea eskatzen zuten ponentziak lehen postua ateratu egin du rankinean. Ez da gutxi. Seguruenik, kamino eta finantziario kontuetaz berba egiten entzutea astun egingo zitzaizkien IGPetan egotea egokitu zaien herritarrei. Baina horrelako proposamen argi eta sinple bat beti ulertzen da hobeto, herriko talde mordo baten babesarekin badator batez ere. Kamino azkarrei buruz eman duten iritzia ginetik, bizitza kalitateari aldeko botua ematen ikasi ote dugu? Gure gurasoek trenaren abiada geldoan gozatzen zuten parajea oinez edo gurpil gainean gozatzeko modua.**

ARANTZAZU LOIDI



### JOSU

TRICICLATA  
KAFETEA

Elkano, 25  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA

### TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

# IGPetako emaitzen inguruen irakurketa desberdinak



Lehendabizi, Deba Bailara Bizi Bizirik taldeko partaideek prentsurrekoa eman zuten.

Asteazken arratsaldean, Monterroneko hitzaldi aretoan, IGPen emaitzen gaineko interpretazio desberdinak entzun ziren. Lehendabizi, Deba Bailara Bizi Bizirik taldeak gai honen inguruko balorazioa egin zuen prentsurreko bidez eta ostean, AEDk antolatutako hitzaldian parte hartu zutenek ere, emaitzen inguruan egiten duten irakurketa zein den azaldu zuten. Deba Bailara Bizi Bizirik taldearen esanetan, emaitzek erakusten dute egun dugun errepidea barriztuta nahiko dela. Talde honetako partaideen arabera, errepidea barriztea nahi dutenen eta berria ere egin nahi dutenen artean

hiru puntutako desberdinatasuna dago eta gainera, Gatzaga-Landako bizilagunen txostenak izandako arrakasta ere kontutan izan behar da. Finantziari dagokionez, peajearen aukerari ezetz garbia eman zaiola gogoratu zuten.

AEDk antolatu zuen hitzaldian uste desberdineko eta zeresan handiko pertsonaiak bildu ziren: Roman Sudupe, Gipuzkoako lan publiko eta azpiegitura diputatua; Xabier Zubizarreta, HB ordezkari gisa; Aitor Orobengoa, EUEko ordezkari gisa; Luxio Ugarte, Gizarteazeko soziologoa; Aitor Iturriaga, IGPtan parte hartu zuena eta Eugenio Otxoa, Gatzaga-Lan-

dako bizilagunen ordezkari bezala. Hona hemen bakoitzak aipatu zituen puntu aipagarrienak:

**Luxio Ugarte:** "Gu neutralak izan gara. Jokua garbia izan da, ipini ziren arauak errespetatu egin dira. Herritarrek parte hartzeko aukera izan dute eta honek ez du eztabaida publikoa kentzen".

**Aitor Iturriaga:** "IGPetan parte hartu dugunok, eztabaida prozesua positiboa izan dela uste dugu. IGPetan izan garenok peajeari ezetz borobila eman diogu eta bide berriaren alde azaldu gara".

**Xabier Zubizarreta:** "Guneetan bukaeran egin ziren galdekizunak kontzen-

tsuatu gabekoak izan ziren, galderak ez dira zuzen egin, autopista kontzeptua gutxitan erabili da. Hobekuntzak egitearen alde agertu dira IGPak baina biak egitea bideragarria ez dela esan dute". Galdera bat bota zuen HBko ordezkariak: "zergatik ez lehengo orain dugun bidea barritu eta gero aztertu ea beste bat behar dugun?"

**Roman Sudupe:** "%70ak bailara honek komunikabide txarrak dituela adierazi du. Guneetako erantzunak sinpleak eta logikoak izan dira. Konklusioetan kontraesan bat ikus daiteke, gehiengo kapital pribatu eta publikoaren alde baitago eta era berean, peajearen kontra agertu baita. Orain proiektua definitzen hasi beharra dago".

**Aitor Orobengoa:** "Maltzaga-Urbina ardatzaren beharra dagoela erakusten dute emaitzek. Tristeia izan da, EAJ, PSOE eta UA alderdiek kolektibo moduan ez parte hartzea. Erabakia hankamotz geratu da: galderak zuzen egin behar ziren; zergatik ez da galdetu autopista edo autobia behar genuen?"

**Eugenio Otxoa:** "Gatzagan eta Landan beti izan da gai honi buruzko sentsibilizazioa. Gehiengoa peajearen kontra dagoela ulertu behar da emaitzetatik eta gainera kontutan izan behar da gehienak N1etik pasatuko liratekeela".

**ileapaindegia**

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE  
Goizeko 9etatik 1a arte  
TFNOA: 79 19 21



Trenbidea berreskuratzearen aldeko txostenak arrakasta izan du IGPetan.

## Trenbidea berreskuratzearen aldeko taldeak amaiera ekintza

Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruko eztabaida prozesuan, trenbide zaharra oinezko eta txirrindularientzat berreskuratzearen aldeko txostena azaldu zuen taldeak amaiera ekintza antolatu du datorren astelehenerako. Abaroa jubilatuko egoitzan egingo den ekintza horretara, txostenaren alde sinadura zuten 40 elkarteak, kazetariak, eta gobernu, diputazio eta bailarako agintariak daude deituta. Hala ere, amaiera ekintza hori burutzeak ez du esan nahi proiektua bertan behera geratuko denik, helburua, orain arte zer egin den azaltzea da. Oraingoan, ponentziaren bultzatzaileak aurrerantzean zein pausu jarraitu eztabaidatzen ari dira, baina IGPtan eta herritarren artean txostenak izan duen harrera ona ikusita, aurrera egingo duela uste da. Hain zuzen ere, Josu Bergara, Garraio eta Herrilan sailburuak idatzi bat bidali die euren txostena gustora jaso duela adieraziz. Sailburuaren esanetan, trenbide zaharra berreskuratzearen ideia oso ona da eta bideen plan bereziaren barruan horrelako proiekturen bat jasotzeko asmoa dagoela adierazi zien. Era berean, IGPtan egin duten ahaleginagatik zoriondu egin ditu sailburuak.

tziaren bultzatzaileak aurrerantzean zein pausu jarraitu eztabaidatzen ari dira, baina IGPtan eta herritarren artean txostenak izan duen harrera ona ikusita, aurrera egingo duela uste da. Hain zuzen ere, Josu Bergara, Garraio eta Herrilan sailburuak idatzi bat bidali die euren txostena gustora jaso duela adieraziz. Sailburuaren esanetan, trenbide zaharra berreskuratzearen ideia oso ona da eta bideen plan bereziaren barruan horrelako proiekturen bat jasotzeko asmoa dagoela adierazi zien. Era berean, IGPtan egin duten ahaleginagatik zoriondu egin ditu sailburuak.

## Kontratuen luzapena

Orain dela sei hilabete, udal irratirako kontratatutako bi teknikariei, kontratua luzatu diete beste urtebetez. Oraingoan, Nerea Zubiete eta Patxi Montero teknikariak, proiektua egiten ari dira. Bestalde, museo industrialerako proiektua egiten ari denari, Isabel Aramendiari ere, gabonak arte kontratua luzatu diote. Gabonetan erakusketa egingo da.

## Merkataritzaren egoera


Ibai Artek proposatuta, merkataritza sektoreko egoera eta etorkizunerako perspektibei buruz LKSk egin duen ikerketa sozio ekonomikoaren emaitzak ezagutu dira ostegunean. Ikerketa honek adierazten duenez, jende asko joaten da Gasteiza erosketak egitera. Hori horrela izan ez dadin, erosleak erakartzeko formulak aurkitzea gomentatzen da. Akatsei dagokionez, Arrasaten aparkaleku falta dagoela, kaleko garbitasuna ez dela zaintzen eta argitasuna kontutan izan behar dela esaten da.



**ZENBAKI**  
Aholkularitza

Basabe industrialdea  
ARETXABAETA  
☎ 79 88 75 - 79 75 99





Datorren astean hasiko da martxan zerbitzu berria.

**Larrialdietarako zerbitzu berria inauguratzean aurreratu zenez**

## Eraikin berria egingo da Eskualdeko ospitalean

Larrialdietarako zerbitzugune berria inauguratu zuten atzo Eskualdeko Ospitalean. Larrialdietarako gelak azaroaren bukaeran hasi ziren egiten eta seguruenik, datorren astean hasiko dira funtzionatzen. Zerbitzugune berrian itxarongela, larrialdietarako lau kontsulta gela, beste kontsulta normal bat, bihotz eta biriketarako erreanimaziorako gela ta igelso gela daude. Alvaro Sainz de Viteri, Ospitaleko gerentearen esanetan, orain egindakoaz eskualdeko herritarrentzat zerbitzu moderno eta ona jarri da.

Inaugurazio ekitaldian, Iñaki Azkuna,

Osasun Sailburua ere izan zen eta horrelako berrikuntzekin Eskualdeko Ospitala prestigioa hartzen ari dela adierazi zuen. Baina sailburuak egindako adierazpenetatik, Eskualdeko Ospitalerako dituzten asmoak dira aipagarrienak. Sailburuak aurreratu zuenez, egun ospital aurrean dagoen aparkalekuan beste ospital bat eraikiko da. Dagoeneko udaletxeari asmo horren berri eman diote eta ospitala eraikitze toki hori emateko eskatu dute. Ospital berri hori lehenbait lehen eraikitzen hasteko asmoa dago eta 72 oherentzako lekua egongo litzateke bertan.

## Arau osagarriak

Maiatzaren amaiera arte dago zabalik Arau Osagarri buruz erreklamazioak aurkezteko epea. Hirigintzako Plan Orokorren barruan arau horiek berebiziko garrantzia izango dute; hori dela eta, dagoeneko baserri-auzoetako ordezkariak euren kexua azaldu dute, behar adinako argibiderik eman ez delako, eta prozesuan parte hartzeko aukera gutxi eman zaielako. Orain erreklamazioak aurkezteko epea dute eta baserriar edo lurjabe bakoitzak bere aldetik, nahiz erreklamazio orokorren kasuan bateraturik egiteko asmoa dago. Horretarako, auzoetako ordezkariak batzen dituen komisio berezi bat sortu da.

## Goikoetxearen heriotza

Jose Mari Goikoetxea musika arloko promotore ezagunaren heriotzaren berri aste honetan. Elkar argitaletxeko musika arduraduna, aurretik Arrasaten urte mordoxkan lanean aritua, lehinik Landaluzeren harategian eta gero Fagorenen.



### IRAKASLE ESKOLA

**Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:**

1994 - 95 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela

Ikastetxe honek, Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion Espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994 - 1995 ikasturteari begira

✓ Haur Hezkuntza

✓ Atzerriko hizkuntza: Ingelesa

✓ Hezkuntza musikala

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA. Tfnoa: 71 41 57 ESKORRIATZA



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORRIATZA



**MIKEL ELORZA ETXEBARRIA**

25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria

Arrisku gerentea

S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5º-A  
Tfnoa: 43 04 14  
Fax: 43 11 01  
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea  
Tfnoa-Fax: 77 13 09  
20.500 ARRASATE



Monte tabernan Espainiako Buelta jarraitzeko egin duten porraren irabazleak baditugu, dagoeneko. Lehen saria, eta ez nolanhikoa, 387.5000 Pta, **Jon Sagastak** eta **Emiliano Ruidiazek** lortu dute. Bigarren sariaz, hau da, 193.750 Ptaz **Jon Balanzategi** eta bere anaia **Roman** jabetu dira. **Xabier**

**Axpek** eta **Fernando el Campok**, hirugarren postuan geratu direnez, 77.500 Ptako diru kopurua irabazi dute. Porra honek 155 partehartzaile izan ditu eta Giroan eta Tourean egiten direnaz konparatu ezker, bueltako porrie makalena izaten da. Zorionak guztioi!


**Laurent Jalabert-ek** Espainiako bueltan, 7 etapa irabazi ditu. Baina, Zaragozan eta Iruñean irabazitako etapetan oparitu zizkionten lora sortak **Pako Azkonaga Arrasateko** bere lagunari eman zizkion eta honek, **Dorletako Amari** eskeini dizkio.

Gasteizko AEKko ikasle eta irakasleen bisita izan dugu aste honetan. 7. urratseko ikasleek

arreta handia jarri zuten ARRASATE PResSEN eta Telebistan egiten dena entzuterakoan.



**ARRASATE PRESS**  
**HARPIDETZAK**  
 **77 08 15**

**LORATEGI**  
  
 Iturriotz, 7  
 ARRASATE  
 Tfnoa: 79 04 67

**UGARTE**  
**Industri hornidurak**  
 Arrasate pasealekua  
 Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
 Telefax: 793412



Maiatzaren 22ra bitartean ikusgai dago Gasteizko Diputazio plazan Burdinbideari buruzko erakusketa. Bertan, Leintz ibarretik pasatzen zen Anglo-Vasco-Navarroaren makina eta bagoi bat daude erakusketan. Horretaz gain, panelez osatutako erakusketa ere ikus daiteke. Tren horren historia, Europako trenbideei buruzko informazioa, eta

Euskal Y proiektua dauden jasota. Azken horri buruz datu bat: 104 kilometrotan zehar 98 tunel izango ditu "Y"-ak, luzeena Udalaizten azpitik pasako dena, 6,475 kilometro-takoa.

Erakusketan TGVri buruzko bideoa eta ferrokarrilaren historia jasotzen duena ere ikus daitezke.

**Agurtzane Gainzarain eta Andoni Zubia zapatuan ezkondu ziren Garagartzako elizan eta bazkaria Gure Ametsan izan zuten. Ezkon bidaian, Puerto Ricora joan dira. Zorionak bioi!**



## IZEN PROPIOAK

● **Jon Atxak** 14 urteko arrasatearrak, Frantzian jokatu den Judo txapelketan lehen postua lortu du. Jon gerriko urdina da eta San Frantzisko Xabier ikastolan ikasten du.

● Lau kaleko lurrazpiko aparkalekua zaintzeko 5 pertsona kontratatu ditu Udalak. **Aitor Aperribai, Eneko Bergara, Josean Aranburuzabala, Juan Jose Agirreurreta** eta **Xabier Ezkurra** dira aukeratutako pertsonak. Urte beteko kontratua izango dute.

● **Xabier Ezkurra**k, 24 urteko arrasatearrak, San Viatorreko Logotipo lehiaketan, lehen saria lortu du. Xabierrek Gasteizen diseinua ikasi du.



## ARGÍ PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua kongromezu barik**

**Erakusketa berria:**  
Kanpatorpea, 2  
(Parrokia ondoan)  
ETORRI IKUSTERAI



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

## TXOKO TABERNA

**Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak**

Otalora, 7 Tinoa: 79 20 10 ARRASATE


# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK


## ZURE AMETSA...



**G**uk  
pentsatu...



**G**uk.  
egin...



**Z**uk  
gozatu

**BAINU ERAKUSKETA**

Zarugalde kalea, 52  
**ARRASATE**

Tf. 945 70 00 40

**SUKALDE ERAKUSKETA**

Udala Enparantza, z/g  
**ARRASATE**

Tf. 945 70 00 40

**FAGOR**



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Unai

## Final erdietan buru belarri

Partidu bakarrera jokatu den finalerdia heldu zaigu eta 4 talderen eskutan eta trebezian egongo da finale-rako txartela lortzeko aukera; Argi Ibili eta Trikiti, A taldean eta Fosforos eta Irati, B taldean, izan dira aurtengo zortedunak, eta bide batez, sailkatu direnak. Horrela bada, lehia, emozioa eta azken orduko urduritasuna ziurtatuta daude. Honez gain, final erdietan, txapelketan zehar ez bezala, ordu erdiko bi zati izango ditugu, eta ez 25 minutukoak. Esanak esan, 10 minutu gehiago, duten

guztia kantxan uzteko.

Final erdiak zapatuan jokatuko dira 11etan eta 12etan hain zuzen ere. Lehen neurketan, Argi Ibili taldeak Irati izango du aurrez aurre. Bigarrenean Fosfososek, Trikitiren kontra neurtuko ditu indarrak. Gauzak horrela, motorra berotzen ibiliko dira, sailkatuak honez gero, izan ere, horrenbeste asteburu jo eta ke futbitoan aritu ondoren, nork ez du txapeldun izan nahi?; nahia guztiek izango dute, baina inkognita hurrengo kapituluan argituko zaigu.

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-  
JARTZEAK

Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

**PUB  
HAIZEA**



# Zaldibarko Txapelketa

## A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	3	2	1	0	14	5	<b>5</b>
TRIKITI	3	2	1	0	12	7	<b>5</b>
MIKELOS	3	1	0	2	11	10	<b>2</b>
PEPELUS	3	0	0	3	4	19	<b>0</b>

## B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	3	2	1	0	12	9	<b>5</b>
IRATI STS	3	1	2	0	8	6	<b>4</b>
ARLUTZ	3	1	1	1	5	5	<b>3</b>
ARLUTZ	3	0	0	3	7	12	<b>0</b>

Asteburuan, futbitoko finalerdiak izango ditugu protagonista Zaldibarren. Hil ala biziko bi neurketa ikusteko aukera izango dugu. Batetik, 11etan Argi Ibiliri eta bestetik 12 etan Trikiti-Fosforos. Baina Uribe auzoan ere egongo da zer ikusi. Zapatuan, Bodisca-Bar Nuevo eta Berango Sukaldeak-Sorgol neurketak eta domekan, Fancy Bois-Beti Gazte eta Korinto Taberna-Borroch'n Roll neurketak gomen datzen dizkizuegu. Orain, zuek erabaki.



# Uribe auzoa Txapelketa

## A taldea

Lo+ X	13
Corinto taberna	12
Borroch'n roll	11
Semen Up	11
Ola tailerrak	11
Altza porru	8
Kabiru	7
Lore gazteak	6
Trotabares	6
Elisabeth	5
No comment	0

## B taldea

Nuevo taberna	14
Bodisca	11
Ganbelas	11
Solano 7 mares	10
Berango sukal.	10
Sorgol	9
Yomai	8
Ke Oxtias!	7
Lokis	4
Bayer de Lenitz	4
Atxanta ke te ...	2

## D taldea

Equs	14
Stocker's	13
Hirei	12
Belo eta Txapi	12
Lautherbrunnen	9
Estrella floja	8
Mob. Arenaza	7
Top hits	7
Ezkinako hontzak	4
Los insociables	3
Etxe mobil.	1

## E taldea

Los Dimy	16
Jo ta Akabau	11
Txeyenex	11
Beti gazte	10
Excav. Lete	10
Fancy bois	9
Los Dalton	9
Kirten tropel	8
Auf dem koffer	4
Los garimbas	2
Borroch'n prom.	0



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

**BELARRIRA**

◆ **Sailkatuak.** Aipatu ditugu zeintzuk izan diren sailkatu diren taldeak, beraz, azkenerarte iraun eta sailkatu ez direnak aipatuko ditugu jarraian: 5. postuan Zuloak, 6.ean Mikelos, 7.ean Arlutz eta 8. postuan Pepelus. Aipatu beharreko datua, Zuloa taldea iaz finaleraino heldu bazen ere, aurten ez du sailkatzeko aukerarik izan.

◆ **Epaileak.** Finalerdietan Carabias eta Canacho izango dira epaile lanak beteko dituztenak. Finalerako, berriz, oraindik ez dago epailea aukeratuta.

◆ **Golak.** Zaldibarren final laurdenetako azken neurketan 27 gol sartu ziren. Mikelos izan genuen talde golatzaileena 7 golekin.

◆ **Uribe Auzoa.** D taldeko Etxe mobiliario eta E taldeko Los Carimbas, azken jardunaldian aurkeztu ez zirenez, kalean geratu dira. Aurrerantzean, talde hauen kontra neurtu behar dituzten taldeei irabazita emango zaie partidua.

**EMAITZAK ZALDIBAR**

**A TALDEA**

Pepelus 2 - Mikelos 7  
Argi ibili 3 - Trikiti 3

**B TALDEA**

Arlutz 4 - Fosforos 6  
Irasti STS 1 - Zuloak 1

**EMAITZAK URIBE AUZOA**

**A TALDEA**

Corinto taberna 8 - Altza porru 5  
Ola tailerrak 1 - Semen up 7  
Trotabares 1 - Borrock'n roll 0  
Lore gazteak 6 - Kabiru 5  
No comment 2 - Lo + X 6

**B TALDEA**

Berango sukaldeak 6 - mLokis 4  
Atxanta ke te merece 7 - Solano 7 mares 8  
Bodisca 2 - Sorgol 4  
Ganbelas 4 - Ke oxtias! 1  
Yomai 3 - Nuevo taberna 4

**D TALDEA**

Lautherbrunnen 2 - Hirei 5  
Estrella floja 1 - Etxe mobiliario 0  
Equis 10 - Ezkinako hontzak 0  
Top hits 4 - Belo eta Txapi 8  
Los insociables 4 - Mobiliario Arenaza 7

**E TALDEA**

Jo ta Akabau 8 - Auf dem koffer 1  
Fancy bois 3 - Kirten tropel 3  
Los dimy 1 - Los Garimbas 0  
Los Dalton 4 - Beti gazte 3  
Borrock'n roll promesas 1 - Excav. Lete 13

**ASTEBURU HONETAN**

**ZALDIBAR**

**Larunbata 21**

**Zaldibar**

11.00 Argi ibili - Irati STS  
12.00 Fosforos - Trikiti

**URIBE AUZOA**

**Larunbata 21**

**Iturripe A**

09.00 No comment - Elisabeth  
10.00 Yomai - Bayer de Lenitz  
11.00 Estrella floja - Belo eta Txapi  
12.00 Bodisca - Nuevo taberna  
13.00 Los Dimy - Excavaciones Lete  
15.00 Berango sukaldeak - Sorgol  
16.00 Kirten tropel - Auf dem koffer  
17.00 Los insociables - Stocker's  
18.00 Borrock'n roll promesas - Txeyenex

**Iturripe B**

09.00 Trotabares - Lo + X  
10.00 Atxanta ke te merece - Ke Oxtias!  
11.00 Ola tailerrak - Kabiru  
12.00 Equis - Mobiliario Arenaza  
13.00 Altza porru - Semen up  
15.00 Fancy bois - Beti gazte  
16.00 Corinto taberna - Borrock'n roll  
17.00 Lautherbrunnen - Ezkinako hontzak  
18.00 Solano 7 mares - Lokis



**Udalaitz, S. A.**



**ADI!**  
**2. Eskuko**  
**autoak**



**Audi 90 4x4**  
**IBIZA diesel**  
**PASSAT CL**  
**GOLF GTD**

**HU-0375-J**  
**SS-6594-AB**  
**VI-3883-K**  
**BI-7012-AY**

Musakola auzoa, z/g  
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25



**PINTURA EKOLOGIKOAK**  
**Diferentzia: zure osasuna**

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

# Final aurrekoetarako sailkatutako taldeak

## ARGI IBILI



**Zutik:** Pako, Elizaran, Mange, Bunder eta Iñaki.

**Makurtuta:** Fede, Luengo, Teri eta Sanz.

## TRIKITI



**Zutik:** Iñaki, Jose Mari, Etxeandia, Emilio eta Raul.

**Makurtuta:** Jabi, Antxon, Piti, Txutxi eta Apraiz.

## FOSFOROS



**Zutik:** Gaizka, Toni, Aiani eta Menoti

**Makurtuta:** Edu, Juanito, Jaime eta Imanol

## IRATI STS



**Zutik:** Iraola, Uriona, Dabid, Asier, Unai, Barrena eta Maik

**Makurtuta:** Aker, Aitzol, Fernan, Kepa eta Igor



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

# Etxezarreta

## “Belle époque” arrasatearraren azken aztarna

Kepa Oliden

**Arrasatetik Bergarara goazela eskumara geratzen den arboladia, askorentzat izenez izaguna, beste askorentzat ezezaguna: Etxazarreta, edo Etxezarreta da. Ingurugiroaren aldetik, basoaren sorrera-prozesua bete-betea gordetzen den lekua izanik, balio handikoa. Izan ere, edertasuna simetria ez denean gordetzen da berezko naturan. Abiadura Handiko Trena, Durango-Beasain eta Maltzaga-Urbina aipatzen direnean, Damoklesen ezpata Etxezarretaren gainean dago, kinka larrian. Maltzaga-Urbina inguruko proposamen ofizialak harrapatu egiten du Etxezarretako basoa.**

**Garai baten Etxezarreta edo Sagasti-Etxean bizi ziren jauntxoak eta etxearen historia jaso nahi izan dugu guk, izan zena, gaur egun dena eta izan daitekeena bat egiteko. On Rafaellek burua altxatuko balu...!**


### JATORRIA

Gaur ezagutzen dugun Sagasti-Etxea izeneko finka, Bergarako Etxazarreta-Ibarzabal familiak osatu zuen XIX. mendean. Juan Francisco Etxazarreta Urkiola, jatorriz Ormaiztegiakoa eta lanbidez abokatu, Natalia Ibarzabal Zabala bergararrarekin ezkondu zen mende horren erdialdera. Natalia Ibarzabalek, bere aitaren herentziaz, baso-sail handiak eskuratu zituen, Kortapototik hasi eta San Prudentzioraino. Baina lur-jabego horren barruan ba omen zen isla moduan geratzen zen zati bat euren ez zena. Jabegoa osatu asmoz, Nataliaren senarrak, Juan Francisco Etxezarretak, falta zen zati hori bere jabeari erosi zion 1860an; 1.818 erreal ordaindu zituen.

Etxezarreta-Ibarzabalta-  
rrek osaturiko jabegoak 90 bat hektareatako lur sailak (900.000 m<sup>2</sup> baino gehiago) biltzen zituen. Sagarrondo sail handiak zeuzkaten eta, antza denez, oso sagardo ona egiten zen bertako sagarrekin. Tradizio horren froga nabariena izenaren etimologian dauka: Sagasti-Etxe.

Joxe Letonaren esanetan, etxe horretako sagardoak izen handia lortu zuen garai batean gipuzkoan zehar, herri askotara “esportatzen” zutelarik bertako produkzioa. Oraindik ere, ikus daitezke Sagasti-Etxeko dolarea eta sagardo egiteko tresneriaren arrastoak.

1871ko abenduan, Juan Francisco eta Nataliak emandako herentziaren arabera, euren alaba Severina Etxaza-



Kaminotik begiratuta, etxe baten aztarnak baino ez dira ikusten.

retta Ibarzabalek bereganatu zuen Sagasti-Etxeko finkaren jabegoa. Artean, Severina Madrilen ezkondu bizi zen, Rafael Ariza Espejo mediku andaluziar ospetsuaren emaztea. Ariza doktorea Ecijan (Sevillan) jaio zen 1826an eta Arrasaten hil 1887an.

Arizak sekulako ospea lortu zuen espainiar medikuntzan, bereziki laringologia eta otologia arloetan.

Ezkondu ondoren, Rafael Ariza eta Severina Etxezarreta Madrilen bizi izaten ziren. Aurrerantzean, familiaren bizitza Madril eta Arrasate artean banatu zen.

Rafael eta Severinak 2 seme-alaba izan zituzten: Rafael, 1874an jaioa eta Severina, 1876an jaioa.

Rafael Ariza Espejo doktorea Sagasti-Etxean hil zen



Rafael Ariza Espejo

1887ko urrian. Bere pentsakera progresista eta liberalari ohore eginez -librepentsadore Krausista sutsua zen- azken sakramentuak hartu gabe hil zen. Bere emaztea, Madrilen hil zen 1902an.

**ANAI-ARREBAK**


Seme-alabek erdibana jaso zuten Sagasti-Etxearen jabegoa. Rafael eta Severina Ariza Etxazarreta anai-arrebak, jaiotzaz Madrildarrak baziren ere, amaren heriotzaren ondoren, Arrasatera etorri ziren bizi izatera. Orduko eroldaren arabera, eurak dira, zerbitzariez gain, Sagasti-Etxea bizileku finkotzat aukeratu zuten lehenengo eta azken jabeak.

Ordurarte etxekorik ez omen zen inor bizi izan Sagasti-Etxean. Antza denez, baserri hori inguruko sagastien uzta batu eta sagardoa egiteko baino ez zen erabiltzen. Betidanik atsedendaldi eta oporretarako erabili izan ohi



Rafael Ariza Etxazarreta

dute etxea. Bereziki, Rafael eta Severina aita-amak, Madrilerazkondu ondoren, egonaldi luzeak egiten hasi ziren bertan uda partean. Hori dela eta, etxea erabat berritu eta egokitu zen helburu horretarako. Honen adierazgarri, etxearen eraberrikuntzaren data bezala 1880 urtea ezar



*Biblioteca de Sagasti Etxea*

dezakegu. Fetxa hori, orain lurrean botata dagoen burdinategian bertan jartzen du: «Sagasti-Etxea 1880».

Dudarik gabe, Rafael eta Severina anai-arrebek Arrasaterekin zuten lotura gurasoena baino askoz handiagoa izan zen. Izan ere, jakina da semeak euskaraz primeran hitzegiten zuela, nahiz eta Madrilen jaioa izan. Oso posible da bere arreba Severinak ere euskaraz hitzegitea.

Bi anai-arrebek Arrasaten zuten etxearenganako joera hobeto ikusteko, oso adierazgarria da 1907an, Severinaren heriotzean gertatutakoa. Severina, pianista bikaina, Parisen hil zen gaitz larri batek jota, 31 urte zituela. Bere anaia Rafael Paristik gorpua ekarri eta zuzenean familiarren panteoian ehortzera abiatu zen.

Severinak Parisen bereburuaz beste egin zuen zurrumuruak zirela medio, gale-razi egin omen zioten hasera batean arreba hilerrian ehortztea. Jarrera hori ikustean, Rafael, arrebaren gorpua etxeraino eramane eta jardinean ehortzi zuen. Handik denbora batera, arreba panteoian ehortzeko baimena iritsi zitzaionean uko egin zion baimen horri. Severinaren hilotza dotoretu ondoren, lur hori bedeinkatzeko baimena eskuratu zuen Rafael Erroman. Gero, etxeko kanposatuan arreba eta bientzat panteoia eraiki zuen eta gaur egun bertan ehortzirik daude Rafael eta Severina.

**RAFAEL ARIZA ETA FELIX ARANO**

Kanpoan jaiotako bi arrasatear hauen adiskidetasuna nabarmena izan zen. Antza denez, Rafael Arizak lagunmina zuen Arano maixua, eta bere irakaskuntza eredu berritzailearen jarraitzaile zen. Ez da harriztekoa, beraz, bi gizon jakintsu eta aurrerakoi hauen arteko adiskidetasunak bere fruituak eman izana Arrasateren izen onerako.

Dudarik ez, Maixu Aranoren irakaskuntzak eragin miresgarriak lortu zituen Viteri Eskoletako ikasleen artean, bereziki kalkulu mentalean. Lorpen miresgarri horiek Arizari eskerrak ezagutu zituzten hiriburuetako zientzia-gizon eta intelektualek.

Arrasateko Viteri Eskolen entzutearen adibide, Ariza bera izan omen zen 1918an Donostiako "Ateneo Guipuzcoano"aren aurrean Aranoren ikasleek burututako demonstrazioaren antolatzaile. Emankizuna Aranoren «Cómo debe ser la enseñanza en la escuela primaria» hitzaldia zen eta 3 ikasle eramane zituen bertara. Mutikoek, zaharrena 12 urtekoa, makina bat ariketa eta problema burutu zituzten Aranoren teoriaren abantailen adierazgarri bezala. Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresuko agiriarian dioen bezala «Aranoren diszi-

puluek zehazki, seguru eta agudo burutu dituzte ariketak, harridura eta mirespena sortuz konkurrentzia hain printzipalaren artean».

Arrakasta itzelaren ondorioz, Arano eta bere hiru ikasleek emankizuna errepikatu behar izan zuten hurrengo egunez.

Arrasatera itzultzean, Julian «Oxina»ren diligenzia jendetzak geldiarazi zuen. Herri guztia kalean zegoen, Donostiatik maixu Arano eta Ariza jaunarekin zetozen 3 mutikoheroiei harrera emateko.



Felix Arano maixua

**RAFAEL ETXEKO JAUN**

1934.ko otsailean hil zen arte, Rafael Ariza Etxazarretak bere bizimodua Madril, Donostia eta Arrasate artean banatu zuen.

Madrilen Meatz-injiniari-tza ikasi ondoren aurrena Madril eta gero Alemanian, Rafael Arizak Herrilan Ministeritzarako lan egin zuen Gipuzkoako Meatz-Injiniari



Etkezaretako kortak inon diren aurrerapen denak zituen.

buru bezala. Ikasketez gain, oso kultura handiko gizona omen zen eta bere aitaren-gandik jasotako biblioteka gorde eta aberastu egin zuen.

Gaur egun ia erabat sakabanatuta dagoen biblioteka hori, bere garaian Gipuzkoako bigarren liburutegi aberatse-na bezala kontsideratua zegoen. Bertan alor eta hizkuntza guztietako argitarapenak gordetzen ziren: bere aitak bezala, Rafael semeak frantsesa, alemana eta italianoa menperatzen zituen.

Jakitura zabal hau ez da harritzekoa, Rafaelak jatorduetan ere ez omen zuen eta bururik altxatzen bere irakurgaietatik.

Ezagupen guzti horri eskerrak edo, Sagasti-Etxeak hainbat hobekuntza ezagutu zituen bere garaian: ur instalazio eta komunak berak diseinatuak omen ziren eta etxetik kanpo ere makina bat proiektu antolatu eta burutu zituen. Harrigarriena, dudarik gabe, bere etxeko terre-

noen erditik pasatzera zihoan trenbidearen desbiderapena litzateke. 1918 aldera heldu zen lehen aldiz trena Arrasatera. Bere terrenoetatik pasa behar zuenez, Rafaelak zati horri zegozkion planoak hartu eta zuzendu eta egokitu egin

zituen trenbidea erreka-baztertera bidaliz.

Horretaz gain, Rafaelak makina bat kamino eta ubide eraiki zuen bere basoetan.

Eraikuntza eta obren artean aipatzekoa da, nola ez, Sagasti-Etxeko korta. Hil baino piska bat lehenago burututako proiektu hau, oraindik ere miresgarria da ikuslearentzat. Adibide bezala, esan behar barrukaldea guztiz baldosa txuriz egin zela eta ganaduek, askaren ordez, ur korrientea zutela edateko. Ganadu bakoitzak iturri bat zeukan eta muturrekin zapaldu ahala urak irteten zuen. Zabor eta lastoaren ekarri-eramanak, zintzilikaturiko bago-neta baten bitartez egiten ziren. Askoren esanetan, Etzarretako ganadua inguruetako baserritar gehientsuenak baino hobeto bizi zen.


### IZAKERA

Izakeraz, Rafael oso gizon zuzen eta zorrotza ba zen ere, bere leialtasun eta ontasunaren frogak ez dira falta izan. Etxeko administratzailearen Saturnino Muruaren familiak eta, bereziki, Juanita eta Lutxi neskameek, oso harreman onak zituzten etxeko


jaunarekin, beti «berori» eta «jauna» errespetuzko tratamenduarekin. Juanita eta Lutxi sarritan laguntzen zioten Donostia eta Madrilera, eta Sevillara ere bai behin, 1929ko Exposizio Unibertsala bisitatuz. Bi neskameek 20 urte baino gehiago egin zituzten Sagasti-Etxean eta Rafaelak, bere heriotzean errenta bana utzi zien.

Bere pentsakera eta ideologiaz ezer gutxi dakigu. Bartzuk errepublikanoa zela esan badute ere, moderazioa izango litzateke bere ezaugarria. Berak esandakoa omen da «yo no quiero que maten ni a los tordos ni a Sanjurjo».

Kalerako joera handirik gabeko gizona, 2 lagunmin izan zituen Arrasate inguruan: Arano maixua eta Garai oñatiarra. Arano maixuarekin harreman hestuak zituen. Kulturaz eta pentsakeraz biak oso aurrerakoiak izan ziren euren sasoirako eta agian horrek txoke egiten zuen kaleko burgesia katoliko tradizionalistarekin. Honek ez du esan nahi bera katolikoa ez zenik, izan ere oratorio edo kapila txiki bat ere bazuen etxean, meza bertan ospatzeko. Moderazio horren adierazgarri da



Etzarretan, etxeaz gain, korta, oilotegi eta kanposantua daude, lorategiaren erdian.



Oporretarako erabiltzeari utzi ziotenetik, gainbehera etorri da etxea.

Rafaelek Arrasateko parrokoari egindako esakizuna: igandeko meza eguerdiko 12etan izan zedila. Parrokoak ezinezkoa zela esan zionean, ez zen gehiago parrokiara joan. Aurrerago, 12etako meza jarri zutenean, Arrasateko parrokoak Rafaeli dei

egin zion, baina Rafaelek «orain ez dut behar» erantzun ei zion.

### EZKONTZA ETA HERIOTZA

Bere osasun eskasa medio, Rafael Ariza Etxazarreta ez zen berandu arte ezkondu.

Arrebak eta biek osasun kasarra gurasoengandik jaso zutela zioen. Zentzu horretan, inoiz entzun ohi zitzaion esaten «nire gurasoek ez zuten ezkondu behar».

Bere lehengusu Juan Gregorio Mendiaren alargunarekin, Maria del Carmen Ruiz de Arkauterekin ezkondu zen 1933ko otsailean, Sagasti-Etxeko oratorioan eta ezkontza-bedeinkaziorik ez zuten jaso nahi izan. Artean, Mendiaren alargunak 42 urte zituen eta 5 seme-alaba, Rafaelek, berriz, 59 urte.

Nalanahi ere, Rafaelek ez zuen familiarik izan.

Hurrengo otsailean, 1934an, hil zen Rafael, heste-ko gaitz batek jota eta Sagasti-Etxeko panteoian lurperatu zuten bere arreba Severinaren alboan, berak eskatu bezala.

Usteak uste, Rafaelek ez zion sosik utzi bere alargunari. Bere heredero bakar eta unibertsal bere lehengusu Manuel eta Antonio Oliver Etxazarreta izendatu zituen. Baina, harritzeko bada ere,

Oliver anaiak errefutatu egin zuten Rafaelek utzitako herentzia eta, ondorioz, Donostiako Epaitegi batek Carmen Ruiz de Arkaute izendatu zuen Sagasti-Etxeko jabe.

1979ean alarguna Madril hil zenean, Sagasti-Etxeko finka bere seme alaben artean banatuta utzi zuen. Rafaelen heriotzarekin, alargunaren eta bere familiaren atsedeneku bihurtu zen Sagasti-Etxea. Mendiatarrek familiar-tekoak zeuzkaten Arrasaten. Etxe inguruko obra eta basoko lanak erabat utzi zituen ugazaba berriak. Uda partean etortzeko ohitura uzten joan ziren neurri berean, lorategi eta etxea erori egin dira, azken hau sute batek jota.

Garai bateko aberastasun ta jauntxoaren seinale izan zen etxea, Belle Epoque-aren seinalea. Etxearen inguruko lorategi eta basoak, bertako zein nagusiak bere zaletasuna zela eta kanpotik ekarritako zuhaitz mota bitxiak, isiltasun ta txori-kantu artean daude, etorkizunak zer ekarriko dien zain.

## ETXAZARRETAKO INGURUAREN BALORAZIO EKOLOGIKOA

Etxezarretako inguruaren balorazioa batez ere zuhaitz eta zuhamuxken azterketan oinarritzen bada ere, ez da ahaztu behar animalien komunitateak, landareen komunitatei lotuta azalduko direla. Zenbat eta landare komunitate ezberdin gehiago aurkitu inguru baten, animalien dibertsitatea ere handiagoa izango da, eta berdin, zenbat eta hobeto kontserbaturik egon komunitate begetala, animalien taldeak ere hobeto kontserbatuko dira.

Etxezarretan 70 zuhaitz eta zuhamuxka espezie ezberdin identifikatu dira bertara egindako irteeratan. Baina espezie hauek ez daude edozein modutan banatuta, taldeka edo komunitateka agertzen dira. Hauek dira Etxezarretako landaretza talde aipagarrienak:

**HARIZTIA:** Inongo dudarik gabe, inguru guztiko komunitate aipagarriena, honako arrazoi hauengatik: hariztiaren tamaina (bailareren sakonean tamina horretako beste hariztiarik ez daukagu), aberastasun espezifikoak (hiru haritz mota nahasten dira eta espezie laguntzaile ugari), hariztiaren egitura (normalean gertatzen denaren kontra, baso egitura nahiko ondo



mantentzen da kasu honetan).

**HALTZADIA:** Etxezarretan hasi eta San Prudentzioraino, Deba ibaian geratzen den ibaiertz naturalenetakoa dago (honela baieztatzen du ibaien erztetako landaretzari buruz Diputazioak egin berri duen ikerketa batek). Haltzadiak eta baso mistoak jatorrizko egoeratik urrun egonda ere, egitura interesgarria eta espezie aberesta-

sun nabarmena mantentzen dute.

**ARTADI HONDARRAK:** Oso txikiak izan arren, euren presentzia oso interesgarritzat jot behar da eta inguruari aberastasuna ematen diote.

**GURBITZAK:** Pinadi gazteen azpian garatzen ari diren gurbitzak, ezezagunak izan arren nahiko ugaritzen ari dira.

**LORATEGIA:** Etxe inguru eta bertako lorategia aipatu beharra dago. Giza inguru guztiek bezala, aberastasun eta egitura ekologiko aldetik balio gutxiago dauka zati honek. Hala ere, azken urteotan inguru nahiko ahaztuta egotearen ondorioz, errekuperazio prozesu naturala nabarmentzen da. Espezie arruntekin batera lorategiko espezie bitxiak aipatu behar dira.

**MENDIA BIZIRIK**



# 15 urteren ondoren, berriro, finalerdietan


## PENALTIAK

● **Maiatzaren 28an Bergegan Deba Garaiko eskola arteko 5. olinpiada ospatuko da. Olinpiada hauetan Deba Garaiko edozein herritako O.H.O.ko 5. eta 6. mailetako neska-mutiek har dezakete parte. Bertan ondorengo kirol hauek praktikatzeko aukera dago: herri kirolak, gimnasia jokoak, kirol alternatiboak eta ur jokoak.**

● **Arrasateko Kirol Proiektuak, 2. bizikleta ibilaldia (Arrasate-Aramaio-Arrasate) antolatuko du, maiatzaren 28rako. Ibilaldiak goizeko 10etan irtengo du Herriko Plazatik, eta helmuga Iturripen izango da. Bizikleta txango honetan, 9 urteko gorako arrasatear guztiek har dezakete parte. Eta antolatzaileek bi ohar aipatu dizkigute. Batetik, puntualitatea eta itxurazko bizikleta ekartzea eskatzen da. Bestetik, 12etan Iturripen Arrasateko Kirol proiektuko partaideen artean sari-zozketa egingo dela; jakinaraziko diegu.**

**Arrasateko** pilotariek final erdietan sailkatzea lortu dute, herri arteko pilota txapelketan. Lorpen hau duela 15 urte bizi izan genuen baina harrez gero, urte dexente pasa da horrelakorik ikusi gabe. Aurten oster, ordua iritsi zaigu eta Donostiarren kontra irabazi ondoren, horixe ditugu gure jokalaria.

Larunbatean Donostiako eta Arrasateko pilotariak izan genituen aurrez aurre. Bigarren jardunaldia zen eta infantiletan, Etxeberria eta Rubia (18-6) nagusitu ziren. Jubeniletan beste horrenbeste egin zuten Zugastik eta Errastik, azkenean emaitza (22-16) gure pilotarien alde. Nagusietan oster, Iñaki eta Luis Kortak garaipena lortu ez bazuten ere, (19-22), aurrekoen emaitzak kontutan hartuta sailkatzeko txartela gure esku geratu zen. Egia esateko, Donostiako eta



Arrasateko eta Segurako pilotariek neurtuko dituzte indarrak domekan.

Arrasateko pilotariek garai-penei dagokienez parekatuta geratu ziren, hiru bakoitzarentzat, baina horrelakotan gertatzen den bezala, tantuak hartzen dira kontutan. Donostiarrek 99 tantu lortu zituzte, Arrasatearrek, berriz, 111 tantu. Kontuak kontu, 12 tantugatik Arrasate

aurrera. Orain, datorren domekan erronka berri bati egin beharko diote aurre, finalerdietako lehen jardunaldiari hain zuzen ere. Arrasate eta Segura izango ditugu, nor baino nor. Iturripen neurtuko dituzte indarrak goizeko 10.30etatik aurrera. Zorte on Arrasateko pilotariei!

## EMAITZAK

### Futbola

2. Regionala (kopa): Eibartarrak - Mondra  
Emakumeak (kopa): Uda - Mondra  
Jub. Ohorezko liga: Ordizia - Mondra  
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Eibar  
Hurrengo:  
2. Regionala (kopa): Mondra - Santo Tomas.  
Domekan, 5etan  
Emakumeak (kopa): Mondra - Gure Txokoa.  
Zapatua, 4etan  
Jub. Ohorezko liga: Mondra - Lazkao. Zapatuan, 6etan

### Eskubaloia

Igoera fasea: Arrasate Kirolak 20 - Club balonmano Vitoria 24  
Hurrengo:  
Igoera fasea: Deusto - Arrasate Kirolak. Domekan, 11.30etan.

### Pilota

Herri artekoa - Arrasate 2 - Donostia 1  
Infantialak (18-6), Jubenilak (22-16), Nagusiak (19-22).  
Hurrengo  
Herri artekoa, finalerdiak: Arrasate - Segura.  
Iturripen 10.30etan.  
Infantialak, Jubenilak, Nagusiak.

**FANCY**

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**IBARRA**  
**Garajea S.L.**

 **EBRO NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76



**SALOME ELKOROBARRUTIA**

**Ibai-Arte** merkatarien elkarteak, balkoi, leiho eta miradoreak lorez apaintzen dituztenen artean lehiaketa antolatu duela eta landareez interesa izan dezaketenei aholkuak emateko, sail bati irekitzea pentsatu dugu. Erdikaldean bakarrik ez, herri osoa apaintzea ez legoke gaizki.

Lore eta landareetan Arrasaten norbaitek jakitekotan, norbait iri Salome Elkorobarrutia da. Irakurketak, zaletasun ikaragarriak eta urte-tako esperientziak eman dio loreez berbetan hasten denean darion jakinduria. Gorostiza etxearen inguruak ikustea besterik ez dago loreekin zer egin daitekeen jakiteko, ezagutza eta gustu apur bat izanez gero behintzat.

# Apaindu zure balkoiak lorez!

## Zer lora jar daiteke balkoi edo leihoetan?

- **Beti loran dagoen landarekin** ez dagoenez, zein hila-betetarako nahi den izan behar da kontutan. Ordurako prestatuz joan behar da, arre eragin denak batera etor daitezten, norberak nahi duen sasoirako.

- **Geranioak:** dena berdin berdin, edo takean eta potean zuriaren bat, kontrastea egin dezan.

- Eskinetan, San Juan sasoirako bada, **Pelargonium** edo **Geranio-pensamiento** jar daiteke.

- Geranioa enredadera bada, denei parean eutsi, dariola dagoena maila berean egon dadin.

- Balkoia kerizpean bada, hortesia nano zuriak edo gorriak, uda guztian irauten duena. Alegriak eta tejete txi-

kiek ere balio dute kerizpetarako, larua moratuaz edo lilaz konbinatuta.

- **Kanpanulak** ere jar daitezke ertzean, sasoi mugatua duten arren.

- **Petuniak:** bikoloreak, arrosak, zuriak eta gorriak nahastuta, uda guztian loran

egongo dena.

- **Alheli frantziarra:** ez da inon saltzen, baina ikusgarritzakoa da, lora asko eta usain zoragarria duena.

- Zimeldutako lorak berehaia kendu egin behar dira, berehala gainera, indarra kentzen diote landareari eta.



**Zeureganatu batzuk**

**Ray-Ban®**

6.950 PTAIN

Bizitzari begiratzeko duten eragatik. Originalak. Genuinoak. Ez etsi. Izugarri gustatzen zaizkizu. Zeuregana itzazu.

**J. Larrañaga**  
OPTIKA  
MULTIOPTICAS  
BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA

Betaurrekoak erostearen truke kamiseta polit bat oparituko dizugu.

**MULTIOPTICAS**  
Beti zuri begira

## Z E R N A H I A G O ?

## Ana Boisa

## "Bodisca" dendakoa

- Lore asko botatzen dizkizute? Niri ez, nire gorputzeko atalei baizik.
- Begiei buruz inoiz esan dizuten gauzarik orijinalena? "Fanta Limon" kolorekoak direla.
- Eta sustorik handiena? Ez dakit... lanean jasotzen ditudanak izaten dira handienak.
- Ile luzea edo motza? Motza.
- Perfumeak edo koloniak? Koloniak.
- Eraztun asko erabiltzen dituzu? Bat ere ez.
- Insumisioa, bai edo ez? Bai, noski: soldadutzak ez du ezertarako balio.
- Zer egiten duzu asteburuetan? Ezer ere ez, deskantsatzeko aprobetxatzen ditut.
- Margotzen dituzu hazazkalak? Ez.
- Erloju digitalak edo orraztunak? Orraztunak.
- Udan nora joango zara? Ez dakit, diruaren arabera. Hori bai: euririk egiten ez duen lekuren batera.
- Baduzu maniarik? Bai eta oso bitxia gainera: nire eskuetan jausten diren paper guztiak tolestu egiten ditut.
- Zein koloreko jantziak erabiltzen dituzu? Kolore naturaletakoak.
- Bakeroak edo gonak? Biak ditut oso gustoko.
- Zer moduz pasatzen dituzu astelehenak? Nahiko ondo.
- Estresatuta bizi zara? Ez.
- Zein aldizkari irakurtzen duzu? "El Pais" egunkariko suplementua.
- Badakizu dantzan egiten? Beno, mugitzen naiz!
- Lora bat? Orkidea.
- Inoiz jaso duzun oparirik politena? Pelutxezko edozein panpin.
- Zein ordutan joaten zara zapatuetan etxera? 3ak aldera.
- Joaten zara solariumera? Bai.



## BERTSOAK

Seguro-la-ri omenaldia bertsozaleak Apotzan, bein da berriro arrekin nasi neretzat ere izan tzan; egun batean, edo eztaikit bearbada gaba etzan: alde artatik aizeak jota amesetan asi nintzan; neuk ere ez dakit zenbat gozatu detan nik bertso egintzan.

Naizelarik ni utzen urreno ostoa edo orbela, ezta erreza ortik izaten esan diraten bezela; garai onean emen azia eregina ni naizela; nere iritzia, egin detana ainbesteraño ezjala; garbi dagoen, gauz bakarra da, uzta jasotzen detala.

**JOXE MANUEL ARRIOLA**

## HITZALDIA

Gaia: **RUANDAKO EGUNGO GATAZKAREN BERRI**

## Gatazka honen sustraiak:


- Iparra nola den Hegoaren zurrupatzailea
- Gutako bakoitza nola den 3. munduko pobreziaaren errudun

Eguna: **MAIATZAK 24, ASTELEHENA**

Ordua: **ARRATSALDEKO 7etan**

Tokia: **MONTEIRON JAUREGIAN**

Hizlariak: **LEONARDO ESNAOLA**  
**MANUEL AIZPURUA**  
RUANDAN IZANDAKO APAIZ MISIOLARIAK

Antolatzailea:  **AED ELKARTEA**  
arrasate gatazka



# Isidora Moreno

## 101 urteko amona arrasatearra

**Isidora Morenok 101 urte ditu bizkarrean. Cabrerizos izeneko Salamanca herrian jaio zen 1893. urtean eta bere gaztaroaz, pobrezia gogoratzen du batez ere. Datorren zapatuan omenduko dute 6. urtez Jubilatuen festan.**



— 101 urte bizkarren izanda, nola zaude hain ondo?

— Bai, egia esan oso osasuntsu nago, baina ez dut ezer apartekorik egiten. Euriarik egiten ez duen bitartean, egunero irteten dut kalera pasiotxo bat egitera. Hori bai, ez dut inolako esfortzu eta lanik egiten; oso ondo bizi naiz.

— Izango duzu minen bat, ezta?

— Beno, giltzurrunek burukomin pixka bat ematen didate noizean behin, baina daukadan adinerako, ez dut uste oso garrantzitsua denik hori, ezta?

— Zer egiten duzu egunean zehar?

— Pentsatuko duzun moduan, ezer berezirik ez: presa barik jeikitzen naiz, goizeko 11k aldera. Gosaldu egiten dut, gero orraztu eta egunero pasiotxo ematera joaten naiz. Bazkaldu ondoren, bostak arte etxean geratzen naiz eta gero berriz kalera irteten dut lagun batzuekin egotera. Etxera bueltatu, afaldu

eta ohera: ezer berezirik ez.

— **Telebista ikusten duzu?**

— Bai, afaldu ondoren ikusten dut, baina ez galdetu zer programa ikusten dudan ez dakit eta: edozer gauza ikusten dut. Illobak barre egiten dit zer ikusten dudan ez dakidalako, baina horrela lo-gurea sartzen zait eta ia beti, lo geratzen naiz.

— **Dieta berezirik egiten duzu?**

— Ez, baina ez dut barazki asko jaten, ez zaizkit ge-

.....  
**“Daukadan adinerako, giltzurruneko mina bakarrik eukitzea ez da asko, ezta?”**

hiegi gustatzen. Dena dela, oso jatun ona naiz, platerean jartzen didaten guztia irensten dut.

— **Semearekin bizi zara baina zer iritzi daukazu zaharretxeei buruz?**

— Egia esan, ez ditut gaizki ikusten baina oso gustora nago semearen etxean. Jakina, beharrezkoa balitz joango nintzateke, baina nahiago dut hemen geratzea.

— **Nolakoa izan da zure bizitza?**

— Oso gogorra, behartsuen alaba izan naiz ni: josi, garbitu... eta horrelako lanak egin izan ditut beti. Etxeetako paretak zuritzen ere ibili izan naiz gaztetan: kareaz zuritzen genituen garai haietan, oso lan nekeza izaten zen.

— **Datorren zapatuan, omenaldia egingo dizute. Zer sentitzen duzu?**

— Oso emozionatuta nago, gainera 6. urtea izango da hau. Gero ez dakit zer egingo dudan lore sortarekin; agian etxean geratuko da baina bestela, Esperantza Onaren Birginari eramango diot. San Juan jaietan beste sorta bat oparitzen didate eta ez dut jakiten zer egin.

### LABURRAK

#### ICTEren Gerontologia ikastaroak


ICTEk, Hirugarren Adinerako Institutu komunitarioak, Gerontologiako Formazio ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro hauetan honako 4 gaiok jorratuko dira: “Pertsona nagusiekiko zainketaren oinarriak”, “Pertsona nagusiaren osasun psikikoa”, “Hirugarren adinerako zerbitzu komunitarioak” eta “Balorazioa; Pertsona nagusiaren eta zaintzailearen beharrak”; lau ikastaroak independenteak eta monografikoak izango dira.

Ikastaro hauek, gerontologiaren arloan abiatu nahi duten eta pertsona nagusien zainketan aritzen diren profesional eta familiartekoei zuzenduta daude. Ikastaroak, ekainean hasiko dira eta izena emateko, 79 02 11 edo 77 05 00 telefonoetara deitu behar da maiatzaren 27a baino lehen. Ikastaro bakoitzak 10 ordutako iraupena eta 8.500 pta.ko prezioa izango du. Arduradunak Ana Bujanda eta Estibaliz Andrio izango dira eta Eskola Politeknikoan, Saiolaneko ikasgela batzuetan emango dira astelehenetik ostiralera bitartean.

Etxean aiton-amonik duten familientzat, oso interesgarria izan daitezke ikastaro hauek.

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
 Tfnoa: 79 77 11  
 Faxe: 79 77 11  
 ARRASATE  
 Postakutxa: 118

# “Amets Beroak”: Dantza garaikidea

**Arteszenak.** Gipuzkoako Teatro Publikoko dantza taldeak, bere lehen koreografia eskainiko du datorren larunbatean hilak 21 Amaia Antzokian. Emanaldi hau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak antolatutako Dantza Garaikideko XI. Ihardunaldien barruan kokatzen da, “Maiatza Dantzan” zikloaren barruan.

“Amets Beroak” koreografia, Mar Gomez, Toni Mira eta Iosu Mugikak sortu dute; musika, besteak beste H. Mancini, Adam, J. A. Espinoza, Iñaki Salvador eta Angelo Badalamenti musikagileena izango da. Hamar dantzarik hartuko dute parte koreografia honetan: Miguel Zubeldia, Blanca Arrieta, Asier Zabaleta, Patxi Ribera,

Silvia Hoyos, Ana Serna, Ana Remiro, Rosa Royo, Bosco Solana eta Nerea Arrizabalagak.

Hiru koreografoei euren obrari buruz galdetu zaienean, erantzun desberdinak eman dituzte: Jainkoe eta gizakien arteko joku bat isladatzen duela esaten du Mar Gomezek, elkarrekin amets egiteko elkartzen direnean. Toni Mirak, amets erotikoetan zehar egindako bidai bat dela dio, “Jende berdinak interpretatutako hiru amets. Hiruhilabete lan gogorra eta elkar ulertzeko konpromezu handikoa, horrela, gure emozioak elkarri adierazteko”. Josu Mugikak, kaleidoskopio baten bitartez ikusten denarekin konparatzen du “Amets Beroak”, “kontzeptu jakin bati




Mikel Zubeldia eta Silvia Hoyos dantzariak.

bir txiki bat ematearekin bakarrik, euren artean oso desberdinak diren egoerak sortzen dira, komikoak nahiz dramatikoa”.

Dantzaldia gaueko 10.30etan izango da. Sarre-rak 700 pta.tan salduko dira takilan, Gazte Txartelarekin, 500 pta.

# “Hungara” Orkestra Sinfonikoa



André Bernard zuzendaria.

**Amaia** antzokia beste orkestra sinfoniko baten topaleku izango da datorren igandean arratsaldeko 7.30etan: André Bernarden zuzendaritzapean, Budapesteko “Hungara” Orkestra Sinfonikoa gurera etorriko da.

Orkestra hau 1907. urtean sortu zen. Garai oso zailak igaro zituen bere hastapenetan, hasieran, 40 musikok bakarrik osatzen zutelarik. Orkestraren gaitasun artistikoak, Hungriako aldaketa politikoetara egokitu behar izan zuen, beraz, urtean 40 emanaldi baino gehiago egiten zituzten garaiak eta orkestraren existentzia kolokan zegoen garaiak pasa dituzte. 1948. urtean, orkestraren prestigioa izugarri hasi zen, gaur egun hungariar orkestratan preziatuenetakoa delarik.

## ANDRÉ BERNARD, ZUZENDARIA

Tronpetista gisa mundu osokoan zehar sekulako arrakastalortu ondoren, zuzendaritza ikasketak hasi zituen Parisen Pierre Dervaux irakaslearekin. Bere zuzendari karrera profesionala Frantzia, Belgika, Alemania, Italia, Irlanda, Polonia, Bulgaria, Hungria, Canada eta EE.BBetan egin izan du eta gaur egun, oso orkestra prestigiotsuak zuzentzen ditu, London Symphony Orchestra, Royal Philharmonic Orchestra, Orchestre Philharmonique de Montecarlo edo Salzburgo “Mozarteum” orkestrak adibidez.

Bazkideentzako sarrerak Arrasate Musikalen egongo dira salgai 1000 pta.tan arratsaldeko 5etatik 9etara.

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 08 15**

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,

Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95  
ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



1958an, mondrauetarrek Bruselasera egindako bidaia.

14tik 30era Europan zehar bidaia egin zuten 106 lagunek. Horien artean, Eskolako irakasle eta ikasleak eta laguntzaileak, eta "Liga de Educación y Cultura" delakoaren bazkideek hartu zuten parte.

Ibilaldiaren helburu nagusia Bruselasko erakusketa Unibertsala ikustea zen, baina beste hiri asko ere bisitatu zuten. Ibilbidea: Arrasate-Lourdes-Albi-Lyon-Nancy-Treveris-Bonn-Colonia-Amsterdam-Rotterdam-Am-

beres-Bruselas-Paris-Bordel-Baiona eta Arrasate.

Bidaia hiru autobusetan egin zuten. Egonaldiak, berriaz, kanpinean, Bilboko enpresa batek bidai horretarako bereziki eta itsasontzien oihalekin egin zizkieten 35 kanping-dendatan. Koltxonek Alemanian lortu zituzten. Jatorduetaz arduratzeko sukaldariak, han eta hemen kantatzeaz arduratuko zen abesbatza, soinu-joleak, txistularia eta ezpata-dantzariak


ere eraman zituzten.

Bidaia prestatzen urtebete aurretik hasi ziren, On Esteban Illarramendiren zuzendaritzapean, eta tramiteak Eskolak egin zituen, On Jose Mariaren eraginak ere erabiliz, jakina. Pasaporteak ateratzea, bisaduak lortzea eta dibisak eskuratzea sasoi hartan ez zen bat ere eginkizun erraza. Bidaian parte hartu zuten gehienek atzerrira irteten zuten lehen aldia zuten. (*Jarraituko du*).

**F** amatuak dira Eskola Politeknikoak antolatu izan dituen eskurtsioak. Horietan lehenetakoa jaso nahi dugu aste honetan. 1958ko abuztuaren

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE



**UNITED COLORS  
OF BENETTON**

**ZURE UDABERRIKO MODA  
IZUGARRIZKO PREZIOETAN**


**Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE**

• AIPUA •

*Obedientzia da  
agindu ezin denerako  
bertuterik  
gomendagarriena*

MANERO

• JEROGLIFIKOA •



Euskal Herriko hiri bat

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10					11	
12			13	14		
15			16			17
18		19				
20				21		

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Mari Jose, munduko txapelduna. 4. Zuk eta nik. 8. Odolki. 10. Muskulu. 11. Itsasoan ugari. 12. Erne. 13. ATZoko kontsonanteak. 15. Alfabetoko 17. letraren izena. 16. Arkume. 18. Umetoki. 20. Nortasun Agiri Nazionala. 21. Zilborra.

**Bertikalak** 1. Gogoeta. 2. Idipropa. 3. Zikin. 4. Indarrez, derrigor. 5. Intelligence Service. 6. Zerbait bururatu. 7. Epailari egindako salaketa. 9. Musika-eskalako 6. nota. 14. Ibai gainetik pasatzeko eraikuntza. 16. Arsenikoa. 17. (Ald.) Pinu. 19. (Ald.) Nafarroako ibilgailuetan.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Beti triste ikusteaz aspertuta nauka zu. Aldatu aurpegi goibel hori.

**Taurus** Gauzak hobeto irteteko zure jokabidea aldatu beharrean zaude.

**Gemini** Maitasuna eman diezaizuten, zuk ere ikasi besteei ematen.

**Cancer** Ez litzaizuke gaizki etorriko horren zeurekoia ez izatea.

**Leo** Ez diozu inori kasu egiten eta besteek zuri egiten ez badizute, moskeatu egiten zara.

**Virgo** Nahiz eta orain artean garai txarrean egon, gauzak hobetzen hasiko zaizkizu.

**Libra** Astean zehar zu izorratzen saiatuko dira, baina lasai, brometan izango da bakarrik.


**Scorpio** Ez saiatu katuari bost hanka ateratzen, okerrago da.

**Sagitaris** Gauza gutxiarekin konformatzen denetarikoa zara. Saiatu gehiago lortzen.

**Capricorn** Egiten dituzun tranpa edo azpijoku denak harrapatuko dizkizu norbaitek.

**Aquarius** Zorte handirik izango ez duzun arren, maitasunez aseko zara.

**Piscis** Ezin da dena ongi atera, noizean behin hanka sartzeak ere egiten dira.



K MMERLING

PVCzko

leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia

Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



**Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...**



• SEBAS LOZANOREN GOMENDIOA •



Al-Andalus elkar-teak ekin dio urteroko kultur asteari, eta antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatu nahi gaitu Sebasek. Izan ere, jaiarekin gehien gozatuko dutenak elkarteko bazkideak izango diren arren, edozeinentzat irekita dituzte ateak. "Antzerkia, txirringulari froga, eskulan erakusketa, eta nola ez, sevillana emanaldia", horrelakoetan ohi denez. Sevillanak ikastea ez da erraza, "baina animatu eta pausu batzuk ikas daitezke". Murgil zaitetzazu ere dantzetan, soinekoen kolore bizietan eta musika alaian.

• PROGRAMAZIOA •



- 22 Igandea**  
20.00etan  
Astebete (errep.)  
20.30etan  
Mondragol
- 23 Astelehena**  
13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
"Kukaratxa Motel" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport  
22.00etan  
Pelikula erraldoia: "Willow"
- 24 Asteartea**  
13.30etan  
Eguerdiko Berriak  
13.35etan  
Mondrasport (errep.)  
14.05etan  
"Willow" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
ATBketan  
22.00etan  
"Mafalda eta bere lagunak"
- 25 Asteazkena**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
ATBketan (errep.)  
14.05etan  
"Mafalda eta bere lagunak" (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Tertulixan  
22.00etan  
Dokumentala: "Nola dabilta begazkinak?; Errekuntz motoreak"
- 26 Osteguna**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Tertulixan (errep.)  
14.05etan  
Dokumentala (errep.)  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Bakarka. Gonbidatua: Andoni Egaña bertsolaria.  
22.00etan  
Euskal filmea: "Ehun metro"
- 27 Ostirala**  
13.30etan  
Eguerdietako Berriak  
13.35etan  
Bakarka (errep.)  
14.05etan  
"Ehun metro" (errep.)  
19.50etan  
Kukaratxa Motel  
20.00, 20.30, 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete  
22.00etan  
Haurren filmea: "Arturo Erregea"

• KOMIKIA •



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**Monte  
taberna**

Maalako errabala, 11  
Tfnoa: 79 20 56

• SOLUZIOAK •

JEROGILIFIKOA

Ler. 19. NA  
7. Kereila. 9. La. 14. Zub. 16. As. 17.  
ma. 3. Loh. 4. Bortxaz. 5. IS. 6. Oru.  
Berkalak. 1. Gogapen. 2. Idide-  
bel. 20. NAN. 21. Zilia.  
13. 17. 15. Pe. 16. Axuri. 18. Emasa-  
Odoloste. 10. Gihar. 11. Ur. 12. Adi.  
Horizontetarak. 1. Gil. 4. Biok. 8.  
GURUTZEGRAMA

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65**

**Etxebizitzak**

- **Hiru pertsona behar dira** pisu eder bat osatzeko. Banakako logelaren aukera. Tfnoa: 65 52 98.
- **Garajea salgai** daukat. Iturriotz kalean, 27 znbk.an. Tfnoa: 79 94 40.
- **Garajea salgai Roneon**. Tfnoa: 79 90 50.
- **Arrasaten etxebizitza alokatuko** nieke ikasleei. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea ditu. Prezio interesgarria. Interesatuok dei egin 79 61 95 tfnora.
- **Ikasle edo langileak** hartuko nituzke erdialdeko etxe berri batean. Tfnoa: 79 80 44. Marian.
- **Pisu bat nahi nuke alokatu**. Ahal bada Erguin auzoan. Tfnoa: 79 65 70.
- **Apartamendua alokatzen da Torreveijan**. Ondartzatik hurbil. Prezio interesgarria. Tfnoa: 78 14 72.
- **134 m<sup>2</sup> tako etxebizitza salgai**. 7 logela, eguzkitzua, erabat hornitua, 2 komun, berogailua eta ur beroa. Atondu berria. Bista zoragarria. Tfnoa: 77 10 27.
- **Merkatala lokala alokagai** (traspasurik gabe). 35m<sup>2</sup>. Tfnoa: 79 84 37. Goizeko 9etatik 12etara.
- **Garajea alokatzen da**. Roneo aldean. Tfnoa: 79 36 09.
- **Peñiscolan 6 pertsonentzako bungalow** alokatzen da ekaina, uztaila eta irailean. Hondartzan bertan dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.
- **Apartamendua alokatzen da** Gasteizko erdialdean. Egongela, 2 logela, sukaldea, bainua, berogailua, kalefakzio zentrala, igogailua. Tfnoa: 79 47 95. Gaeuz deitu.

- **Donostian uda garaian** 2 etxebizitza alokagai. - Fermin Calbeton kalean: 2 logela eta 4 ohe. - Easo kalean: 2 logela eta 4 ohe. Tfnoak: 42 32 67 edo 42 45 02. Nati. (Bazkalorduan).
- **Bilbon gela bat libre** baduzu, gustora alokatuko nuke. Dei egin 79 14 01 tfnora. Maite. (Gaeuz).

**Lana**

- **DBase IV programatzen** dakien pertsona baten laguntza behar dut. Dei egin 79 99 82 tfnora. Miren.
- **Uztaila edo abuztuan** lan egiteko 3 neska prest. Tfnoa: 79 31 48.
- **Taberna salgai**. Guztiz hornitua. Estrenatu gabe. Tfnoa: 79 74 80.
- **Emakumea** eskaintzen da, egunean bi orduz lana egiteko. Tfnoa: 79 59 72.
- **OHOko klaseak** emateko prest. Dei egin 79 33 39. 9etatik 11etara. Gaeuz.
- **Neska euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 85.
- **Uztailan lan egiteko** 2 neska prest. Tfnoa: 79 44 86.
- **Ingelesezko klaseak ematen dira**. Irakasle kanadiarra. Azterketa prestaketa. Merkea. Tfnoa: 77 04 58.
- **Pertsona bat behar da** interna moduan etxeko lanak egin eta 2 pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 57 63. Ion (gaeuz deitu).
- **Neska bat etxeko lanak** edo bulegoak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 49 05. Eduerne.

- **Enpresa lizentziatuak** administrari gisa lan egingo luke kontabilitate-matematika edo finantza-matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.

**Salerosketak**

- **Opel kadett GSIko** asientoak salgai egoera onean. 50.000 Pta. Tfnoa: 79 29 93. 3,30etatik 19.00etara. Iban.
- **Fagor berogailua** (gas naturalarentzako) berriberria salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- **FLORET R580-10 teknigrafoa** eta marrazketako mahaia salgai. Oso egoera onean. Prezioa: 90.000 Pta. Tfnoa: 77 10 15.
- **Akordeoi-pianoa salgai** daukat. "GUERRIRI" markakoa. Ezaugarriak: 37 tekla, 80 baju, 4 ahots, 5 erregistro. Prezioa: 20.000 Pta. Tfnoa: 79 08 72.
- **Lasterketa-bizikleta salgai**. "MENDIZ" markakoa eta kuadroa 57 tailakoa. Egoera onean. Tfnoa: 79 25 15. Ion.
- **Argazki kamara salgai**. Automatikoa, 2 objetiboduna. PRAKTIKA Bx20 markakoa. Berria. Interesatuok dei egin. 79 49 05. Eduerne. (60.000 Pta.)

**Denetarik**

- **Zaldibarren sudadera grisa** galdu baduzu, nik daukat. Tfnoa: 79 13 75.
- **Musakolako jaietan**, domekan, arratsaldeko 6.30etatik 9etara urrezko pultsera galdu nuen. Pultseran, Elene izena eta data bat ageri dira idatzita. Eskertuko da. Tfnoa: 79 57 41. (Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu).

**Aste Gazte**

**Lana**

• Diputazioak lan hauen deialdia egin du: a) kudeaketa erdi mailako 4 teknikari. Epea: maiatzak 23. b) zaharren egoitzetako 4 erizain. Epea: maiatzak 29. d) zaharren egoitzetako 3 mediku. Epea: maiatzak 29. e) bizkortze goiztiarreko erdi mailako teknikari bat. Epea: maiatzak 30. f) 3 menpeko. Epea: maitzak 30. g) nekazaritzako peoi bat. Epea: ekainak 1.

**Udako Unibertsitateak**

• XII. Udako Euskal Unibertsitatea. Iruñea, uztailak 18-30. Arloak: artea eta komunikazioa, giza eta gizarte zientziak, hizkuntza

tzalaritza, natur zientziak, zientzia eta teknika. Matrikula-prezio bereziak ikasle edo langabetuentzat. Beka ere eska daiteke. Matrikula epea: ekainak 30.

• "Menendez Pelayo Unibertsitate Internazionala". Santanderren, ekainean hasita irailerrarte. Kurtsoak, mintegiak eta topaketak arlo ezberdinetan. Beka eskatzeko epea: maiatzak 25. Matrikula: maiatzaren 9an zabaltzen da.

**Bekak**

• "Guggenheim Bilbao". 10 beka museoaren administrazioan eta arkitekturen buruzko azterlanetan. Euskal Herriko unibertsitateko ikasleei zuzendua. Lanlekuak: New York, Venezia eta Los Angeles. Epea: maiatzak 31.

• Atzerri Merkataritzaren arloan adituak prestatzeko 25 beken deialdia egiten da. Ekonomi eta/edo Enpresa Zientzietan, zuzenbidean eta injiniaritzan lizentziatupei zuzenduak dira. Epea: ekainak 3.

**Lehiaketak**

• "Francisco de Zurbarán" bideo lehiaketa ez profesionala. 25 urte baino gutxiago dutenei zuzendua. Gaia: pasaiak; iraupena: 8 eta 15 minutuen artean; materiala: V.H.S. zintak. Saria: 40.000 Pta. Epea: ekainak 9.

**"Aurrean posibilitate ugari edukita, ez dago aukeratzeko inongo presarik. Horra hor gazte izateak dituen abantaila askoetariko bat."**

**ISAK DINESEN  
"BREVE FRA AFRIKA"**



**Informazio gehiago:  
GAZTE ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**




D A N T Z A

Jose Ignacia

# AMETS BEROAK

ARTEszeng



AMAIA ANTZOKIAN  
MAIATZAREN 21ean, ZAPATUA  
GAUEKO 10.30etan

SARBERRA: 700 Pto. (Gazte txartelarekin 500)



# ZURE OPELAK AIRE GIROTUA DOHAINIK DOHAINIK

*Freska zaitez!*

Udako freskagarria prestatzen dizu Opelek.  
Zure Corsa, Astra edo Vectra berrian Aire girotu ekologikoa  
(edo deskontu baliokidea) oparitzen dizu gutxienez.  
Opel Injineritza Alemaniarraren oparia duzu.  
Freska zaitez!

B&B&S



Hilabete honetarako promozio baliagarria.



**OPEL**

Z A I N G A U Z K A Z U

**10<sup>o</sup>  
URTEURRENA**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATE**n: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Ofiziala **ARETXABALETAN**

**TALLERES NORTE**

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

**OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.**